


2017-2018 IKASTURTEKO IPI SANSOMENDI IKASTETXEKO DBH 4. MAILAKO HEZIKETA FISIKOKO PROGRAMAREN BARNE-LOGIKAREN ETA GENEROAREN ARTEKO GATAZKAREN ANALISIA

GRADU AMAIERAKO LANA



EGILEA: Jon Rekagorri Gonzalez

ZUZENDARIA: Joseba Etxebeste Otegi

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN GRADUA

2017/2018 IKASTURTEA

LABURPENA

Hurrengo lanaren helburua Vitoria-Gasteizen kokatutako IPI Sansomendi ikastetxeko Heziketa Fisikoan oinarritutako analisi etnografiko bat egitea da, bertan DBH 4. Mailan 2017ko Urritik 2018ko Maiatzera bitartean behaketa parte-hartzailea eginda, jarduerak erregistratuta, sailkatuta eta Euskal kultura tradizionaleko genero eredu ezberdinetan oinarritutako azterketa bat eginda. Behaketa parte-hartzailea eta dokumentuen azterketak egin dira Heziketa Fisikoaren testuingurua ikertzeko. Ondoren, IPI Sansomendiko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoan proposatu diren jardueren barne ezaugarriak aztertu dira, zehatzagoak izateko, espazioa, harremanak eta denbora aztertu egin dira, gero ezaugarrien arteko loturak egiteko (joko-jolas motak aztertuz). Bukatzeko genero ikuspuntutik errealitateak aztertzen joan dira. Lan honetan ondorioztatu da IPI Sansomendi ikastetxeko DBH 4. Mailan eredu maskulino hegemonikoa emakumeei egotzitako eredu femeninoaren gainera dagoela, botere harremanetan desoreka bat sortuz mutilen alde, baina tradizioan eredu femeninoarekin lotuta dauden ezaugarriak ere proposatzen dira klaseetan.

ABSTRACT

The aim of the following study is to make an ethnographic analysis based on the Physical Education from IPI Sansomendi School in Vitoria-Gasteiz, by analyzing the activities that were proposed between October 2017 and May 2018 in the 4^o grade of High School, and comparing its characteristics with the traditional Basque gender models. Qualitative and quantitative methodology has been applied. Participant observation has been done for a better data collect. Different internal characteristics of the activities have been analyzed such us space, relationships and time, and also the relationship between these characteristics in different type of games. Finally all these characteristic have been compared with Basque traditional gender models, and with the reflection these models have had in the traditional Basque games' characteristics. The conclusion is that, according to the traditional Basque gender models, there is a power imbalance between masculinity and femininity that generally goes in benefit of boys, but there are many activities proposed that coincide to the femininity traditional models as well.

HITZ GAKOAK: Heziketa Fisikoa, praxiologia motorra, generoa, barne logika, joko-jolasak.

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	2
ABSTRACT.....	2
1.-SARRERA.....	5
2.-HELBURUAK	7
3. JUSTIFIKAZIO TEORIKOA	8
3.1.Praxiologia motorra	8
3.1.1. Praxiologia motorra giza motortasunaren azterketa.....	8
3.1.2. Heziketa fisikoa.....	8
3.1.3. Barne logika.....	10
3.1.4. Kanpo logika.....	11
3.1.5. Joko-jolasak.....	12
3.2.Generoa	14
3.2.1. Generoa eta kirola.....	15
3.2.2. Generoa eta Heziketa Fisikoa.....	18
4. METODOLOGIA.....	21
4.1 Parte hartzaileak:	21
4.2 Prozedurak eta aldagaiak.....	21
4.2.1. Analisi kualitatiboa.....	22
4.2.2. Analisi kuantitatiboa.....	22
5. EMAITZAK.....	23
5.1 Praktika ludomotorren analisisa kanpo logikaren arabera.....	23
5.2 Praktika ludomotorren analisisa barne logikaren arabera	25
5.2.1. Espazioaren analisisa.....	25
5.2.2. Harreman sozialen analisisa.....	29



5.2.3. Denboraren analisia.....	32
5.2.4. Joko-jolasen analisia.....	36
6. ONDORIOAK.....	42
7. ERREFERENTZIAK	45

1. SARRERA

Anitzak dira lan hau burutzeko arrazoiak. Generoaren eta jarduera fisikoaren arteko harremanaren inguruko jakin-mina aspalditik datorkidan gauza da. Hasteko nire egunerokotasunean egindako behaketa enpirikoetan argi ikusten nituen emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak (jarduera ludiko ezberdinak praktikatzeko tendentziak, segregazioa kirolean, arropa ezberdinak, ilea, kosmetikoen erabilera...). Denborarekin hasi nintzen ulertzen ezberdintasun hauek ezberdintasun biologikoetatik arago zihoazela, eta orduan generoaren paperaz kontzientziatu nintzen. Afera honek jarduera fisikoan isla duela konturatu nintzen, eta Heziketa Fisikoak eta kirolak genero harreman hauetan duen papera aztertzea ekin nion. Horretarako autore ezberdinen publikazioei ekin nien, genero auziak kirolean zuen zerikusia aztertzeko; hala nola, Etxebeste, Brhom, Humberstone, Lagardera edo Hargreaves. Analisi sakon bat egiteko Pierre Parlebas autorearen lana azpimarratu beharra dago, zeinek tresna baliagarri bat ahalbidetu izan duen Heziketa Fisikoa eta kirol jarduerak era osatu batean aztertzeko. Informatu ondoren konturatu nintzen generoa sozializazio prozesuaren ondorio bat zela.

Sozializazio terminoa soziologiaren kontzeptuaren oinarrietako bat da (baita ere antropologiarena eta psikologia sozialarena), eta honek “gizartearen” ikuspuntu dauden beste esanahi ditu. Teoria sozial bakoitzak bere sozializazio prozesuaren teoria du (Dubar, 2000; Etxebeste, J., 2009: 52. orrialdean aipatua). K. Marxen materialismo historikoaren sozializazioaren kontzepzioa eta S. Freuden psikoanalisiaren teoriak dituen ezberdinak izango dira.

Definizio orokor bat ematearren, esan dezakegu sozializazioa banako berri bat gizarte baten kide bihurtzearen prozesua dela, hortaz hau “izaki sozial” bat bihurtzen da, Émile Durkheim-en hitzetan (1999; Etxebeste, J., 2009: 52. orrialdean aipatua). Mutil eta neskek helduak izateko ikastearen prozesuan datza. Balore eta arau sozialen ikasketa prozesu hau bukatu gabeko elementu bat bezala ikusia dago, zeinak une oro garatzen doan zeozer bezala. Bi sozializazio ezberdinak daitezke ildo honetan: lehen mailakoa, familia, eskola eta lagunengatik bideratua; eta bigarren mailakoa, lan munduak bideratua. Esparru guzti hauetako eragina aztertzea izango zen egokiena (komunikabideena eta ingurune kulturalarena ahaztu barik), baina lan hau eskolako aldi baten analisisira mugatuko da soilik.

Heziketa Fisikoak funtsezko papera du sozializazio prozesuan, eta joko-jolasak Heziketa Fisikoaren oinarria direla esan daiteke. Jakina da historikoki eta gaur egun emakumeek eta gizonen tendentzia ezberdinak izan dituztela eta dituztela jarduera ludomotorrak (joko-jolasak edota kirolak) aukeratzeko orduan, eta hau egiaztatzeko 2017ko *Anuario de Estadísticas Deportivas*-an kirol federatuaren eta kirol ohituren atalak begiratzea besterik ez dago (Consejo Superior de Deportes, 2017). Era berean, Euskal tradizio ludikoan oinarritutako Atlas Etnografikoan ere ezberdintasunak aurkitu dira generoaren eta joko-jolasen artean: joko-jolas batzuen parte hartzea sexuaren arabera banatuta zegoela ikusi zen, beste joko-jolas batzuetan sexu ezberdintasun esanguratsurik aurkitu ez zen bitartean (Etxebeste, J., 2009: 66). Egiaztapen hauek iradokitzen dute sozializazio prozesuan genero bakoitzaren eraikuntza jarduera ludomotorrengatik baldintzatuta dagoenaren hipotesia, eta era berean sozializazio bereizgarri honek eragina duela kirola edo jarduera fisikoa hautatzerako orduan.

Hipotesi hau oinarritzat hartuz eta praxiologia motorra tresna bezala, Heziketa Fisikoko irakasle baten ardura da bere edukiak eta jarrerak ikuspegi kritiko eta testuinguratu batetik behatu eta aztertzea, eta ez era bakandu eta azaleko batean. Proposatutako jarduerak bere helburuekin aspektu guztietan koherenteak diren aztertu behar du, eta jarduera horiek ze eragin izan ditzaketen ikasleen jokabideetan. Genero, arraza edo etnia eta gaitasun aldetik inklusioa bermatzeko saiakera ere egin beharko luke irakasle orok, era berean tokiko gizarte eta kulturara egokitzen diren transferentziak bilatuz, honek (edo ikastetxeak) duen ideologiaren eta moralaren arabera.

Emakumeen estatusa positiboki garatu eginda azken urte hauetan, hala ere ez da nahikoa. Horregatik, Espainian eta Europako beste herrialde batzuetan aukera berdintasunean oinarritutako hezkuntza bat lortzeko saiakeran ardurak sortzen ari dira, ikasle bakoitzak duen sexua eta generoa edozein dela ere (Ministerio de Educación y Cultura, 1992). Egia da irakasle askok saiakera bat egiten dutela euren edukiak eta pedagogia diskriminatzaileak eta eskusiboak izan ez daitezen, baina hori edukietan islatuta ikusten da? Batzuetan, irakasleek izandako testuinguruak, egiten duena “arruntena” izateak edo eduki horiek gizartean zilegi izateak eragiten du diskriminazioa era implizituan agertzea, nahi gabe, honek benetan ezkutuko curriculum bat existitzen dela esaten digu. Horregatik berebizikoa da irakasleak aukeratzeko dituen edukien azterketa sakon bat egitea, eta lan honetan proposatzen denaren funtsa hori da,

edukien azterketa sakon bat egitea, batez ere generoaren ikuspuntutik, eta IPI Sansomendi Ikastetxeko Heziketa Fisikoko testuingurua lagin bezala edukita.

2. HELBURUAK

Lan honetan Heziketa Fisikoko IPI Sansomendi Ikastetxeko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoko irakaskuntza proiektuaren azterketa etnografikoa egin nahi da bertan proposatzen diren edukiak generoarekin duten harremana aztertzeko, bereziki Euskal tradizioan eman diren genero ereduetan oinarrituz.

Hiru azpi helburu ditugu:

- 1- IPI Sansomendi Ikastetxeko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoko klaseetako behaketa sistematizatu eta parte-hartzaile bat egiten da.
- 2- IPI Sansomendi Ikastetxeko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoko irakaskuntzan proposatzen diren joko-jolasen barne logikaren analisia egiten da.
- 3- IPI Sansomendi Ikastetxeko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoko irakaskuntzan proposatzen diren joko-jolasen barne logikak generoarekin nolako harremana duen aztertzen da, batez ere tradizioan Euskal Herrian eman diren genero ereduetan oinarrituz.

Bigarren mailako helburuak:

1. Praxiologia motorraren kontzeptu batzuen hurbilketa bat egitea, Heziketa Fisikoa ulertzeko eta aztertzeko tresna gisa.
2. Heziketa Fisikoak sozializazio prozesuan duen garrantzia plazaratzea, bere barnean generoaren eraikuntzan.
3. Joko-jolasen kontzeptuen definizioa eta hauek sozializazio prozesuan duten eragina plazaratzea.
4. Jarduera fisikoaren eta generoaren kritika feministaren hurbilketa bat egitea.
5. Euskal tradizio ludikoan aurkitu diren genero ezberdintasunak eta hauek Euskal Kulturari izan duten isla aztertzea.

3. JUSTIFIKAZIO TEORIKOA

3.1. Praxiologia motorra

3.1.1. Praxiologia motorra giza motortasunaren azterketan

Giza motortasunaren azterketan praxiologiak ikuspegi berritzaile bat eskaintzen du, non ikuspuntu mekanizista estatiko batekin alderatuz, honek ikuspegi sistemiko, testuinguratu eta optimizatu bat proposatzen duen (Lagardera, F. eta Lavega, P., 2003). Lan honetan praxiologia motorra erabiliko da errealitatea aztertzeko tresna gisa, zehatzagoak izateko, Heziketa Fisikoko edukiek sozializazio ikuspuntu batetik genero egituren eraikuntzan eta mantentzean duten papera aztertzeko.

Praxiologia akzio motorraren zientzia bezala ikusten du Parlebasek (2001: 354). Akzio motorra jokabide motorraren gauzatze prozesua da, banako batek edo gehiagok egoera motor zehatz batean gauzatzen dutena, eta praxiologia motorrak akzio motor honen baldintzak, aldaerak, izendapenak, garapena eta logika aztertzen ditu. Tresna honek Heziketa Fisikoko edukien analisi sakon bat egiteko aukera emango digu, horretarako lehendabizi kontzeptu batzuk argitu behar direlarik, praxiologia motorraren ikuspuntutik.

3.1.2. Heziketa fisikoa

Hasteko, komenigarria da Heziketa Fisikoa definitzea, eta horretarako Parlebasen (2001: 172) definizioa erabiliko da. Praxiologia motorraren ikuspuntutik, heziketa fisikoa jokabide motorraren pedagogia da.

Pedagogia hezkuntzaren teoria eta praktikaren jakintza da. Hezkuntza fenomeno konplexua izanik, pedagogiak ere maila eta ezagutza-arlo asko hartzen ditu bere baitan. Horrela, banakoaren zein gizartearen ikuspegitik azter daiteke eta ondorioz, psikologiaren eta soziologiaren kontzeptu, teoria eta metodoak biltzen ditu bere baitan. Beste alde batetik, ikuspegi teoriko eta ideologiko batetik (filosofiaren eta politikaren bitartez) zein berehalako ikuspegi praktiko batetik azter daiteke (didaktika izeneko arloa osatuz), hezkuntzarako metodo eta teknikak garatuz (Álvarez de Zayas, C. , 2005).

Jokabide motorra, aldiz, portaera motor jakin bat eta honek duen esanahitzat ulertuko dugu, portaera motorraren esanahi esanguratsuen antolaketa. Akzio motorraren esanahia dela esan daiteke, eta bizipen hau era kontziente edo inkontziente batean gertatu daiteke. Hau ezin daiteke era zuzen batean neurtu, adibidez, beisboleko bateatzaile baten akzioa ikusi daiteke, grabatu edo biomekanikoki aztertu, baina akzio horrekin zuzenki erlazionatzen diren sentipenak ez (intentzioa, pertzepzioa, motibazioa, frustrazioa...). Kontzeptu hau tradizionalki “mugimendu” kontzeptuaren ulerkera estatiko eta biomekaniko sinpleari kontrajartzen zaio, eta Heziketa Fisikoan paper garrantzitsu bat hartzen du. Jokabide motorra garatzeko eta aztertzeko objektutzat hartuko du Heziketa Fisikoak; honek mugimendua bigarren plano batean uzten du, eta pertsonak garrantzi handiagoa hartzen du, egoera motor jakin batean mugitzen den pertsona. Azkeneko hau da Heziketa Fisikoak duen berezitasuna, beste diziplinetatik bereizten duena (Parlebas, P., 2001: 85).

Heziketa Fisikoa interbentzio praktika bat da, zeinak jokabide motorrean eragina duen, hezkuntza arau inplizitu edo esplizituen arabera. Eraginen ariketa honek jokabide motorren eraldaketa bat eragiten du, non ikaskuntzaren transferentziaren afera irakaslearen arduren erdialdean kokatzen den (Parlebas, P., 2001: 172). Beraz, Heziketa Fisikoak ahalmena dauka ikasleen jokabideak aztertzeko eta honen helburu pedagogikoen arabera, irakaslea egoera praxiko batzuk aukeratzeko ahalmenaz baliatu behar da, ikasleengan espero edo nahi diren jokabideak azalerazteko (Lagardera, F. eta Lavega, P., 2003).

Egoera motor ezberdinak aurkitu daitezke Heziketa Fisikoan, euren batuketak aukera posible guztiak hartzen dituelarik (Parlebas, P., 2001: 174):

- Instituzionalizatutako egoera motorrak non lehiaketa nagusitzen den (kirolak).
- Instituzionalizatu gabeko egoera motor lehiakorak (kirol-joko tradizionalak, eta naturako jokoak).
- Egoera didaktikoen kategoria, hauek kontsignengatik baldintzatuak (gorputz adierazpena, yoga...).
- Lehiakorak ez diren eta instituzionalizatu gabeko egoera motorrak (adibidez abenturazko aisialdi jarduerak, eskia, irteerak naturatik, jolasak...).

Egoera motor bakoitzak jokabide motor zehatz bat eskatzen eta moldatzen du, bere ezaugarrien arabera. Beraz, irakaslea kapaz izan behar da berak lortu nahi dituen helburuekin koherenteak diren egoera praxikoak hautatzen, berak sustatu nahi dituen jokabideak jorrazteko. Adibidez, klaseetan borroka kirol bat egiteak, futbolera jokatzeak edo mendiko irteera bat egiteak, bakoitzak jokabide motor zehatz batzuk eragingo ditu. Ezberdintasun hauek hobeto ulertzeko barne logika eta kanpo logika kontzeptuak ulertu behar dira.

3.1.3. Barne logika

Barne logika egoera motor baten ezaugarri esanguratsuen multzoa da, eta hauei dagokion akzio motorra egiteko ondorioen multzoa. Barne logikaren ezaugarriak estuki lotuta daude joko-jolasaren arau eta behar sistemarekin. Joko-jolas bakoitzaren portaera motorraren berezitasun hauek batez ere jokoaren arauen kodean ikustarazten dira, hala nola, espazioa, materiala, kide edo arerioak, denbora eta abarri buruzko ezaugarriak; hauek jokoak sortzen dute. Aldagai independente hauek portaera modalitate ezberdinak sortzen ditu, eta hipotesi hau sortzen da: logika endogeno honek (barne logikak) betebehar sistema bat inposatzen du, zeinek jokalarien jokabide motorra orientatu eta eragiten duen (Parlebas, P., 2001: 302).

Kirol joko-jolasak hezkuntza fisikoan asko erabiltzen dira baina askotan era isolatuan, Heziketa Fisikoak osatzen duen markoaren pieza baten moduan eta interrelaziorik gabe aurkezten dira. Hori dela eta, ezinbestekoa da praxiologiak eskaintzen duen kontzeptualizazio zientifiko eta teoriko batetik abiatzea interbentzio motor guztientzat unitate bat sortzeko. Izan ere, praxiologia motorrak joko-jolasak zein era desberdinetako praktika motorrak sistematizatzen ditu akzio motorraren domeinuen nozioaren bitartez. Parlebasen arabera (2001: 161) akzio motorraren domeinuak jarduera ludomotorren multzoak dira, euren barne logiketako ezaugarri garrantzitsuren bat komunean dutenak (adibidez, aurkariarekiko ziurgabetasuna dutenak).

Edukien barne logika ezagutuz irakasleak berak ideologikoki edo politikoki zuzenak kontsideratzen diren helburuak lortzen saiatuko da ikasketaren

transferentziaren bitartez, jarrera batzuk sustatuko ditu eta beste batzuk baztertu, bere ideologia eta moralak oinarri izanik.

3.1.4. Kanpo logika

Esan bezala, barne logikak joko-jolasen ezaugarri bereizgarriak zehazten ditu, baina horretaz gain ezaugarri hauek kulturaren edo ingurune sozialaren ikuspuntutik aztertu beharra dago. Horretarako Pierre Parlebasek (2001: 227) etnomotrizitate terminoa erabiltzen du. Honek esan nahi du toki bakoitzaren kulturak eta baloreek berebiziko influentzia dutela toki horretan gorputz teknikek eta erabilerek dituzten arau eta baloreetan; talde sozial batek teknika eta jokabide motor zehatz batzuk garatzen dituen heinean, hauek arau ludikoak eta jarduera motorren barne logika baldintzatzen dituztelako.

Faktore soziokultural hauek toki zehatz bateko joko-jolasetan islatzen dira, etnoludikotasun terminoak definitzen duen bezala. Adibidez, ulertu behar dugu lehia, emaitzen neurketa, klasifikazio hierarkizatua, espazioaren antolaketa metrikoa edo estandarra eta duelu egitura gaur egungo kirol kulturaren berezitasunak direla, gizarte kapitalista baten testuinguruan. Jarduera ludikoetan edo joko-jolasen barne logikaren analisi bat eginez, kultura horretan aurkitu daitezkeen harreman sozialei, familia irudiei, gizon-emakumeen rolei, naturako elementuekiko harremanei eta abarri buruzko informazioa lortu dezakegu, eta alderantziz. Joko-jolasak kultura baten adierazpen moduak dira, hauek erabiltzen duten espazioan, denboran eta harremanetan ikusgai da. Kultura bakoitzaren "Ni"-a bere joko-jolasetan manifestatzen da. Harreman estu bat dago gizarteetan eta hauek bultzatzen dituzten joko-jolasetan (Parlebas, P., 2001: 223).

Era berean, parte hartzaile bakoitzaren sentitzeko eta pentsatzeko era estereotipatuak agertzen dira, non banako bakoitzak esanahi zehatz bat emango dion ekintza bakoitzari, aurretik azaldutako ingurune soziokulturalak eraginda.

Ondorioztatu daiteke barne logikaren pertzepzio subjektiboak faktore soziokulturalen menpe daudela, eta pertsona bakoitzaren sentimenduekin, ingurune sozialekin eta komunitatearekin. Testuinguru sozial eta pertsonalak baldintzatutako harreman hauek kanpo-logikaren kontzeptuak biltzen ditu; hau da, barne logikak

zehazten ez duen guztia (Parlebas, P., 2001: 223-231). Joko-jolas bat bere osotasunean ulertzeko, barne logikak zehazten dituen antolakuntzak eta ekintza aukerez gain, kanpo logika kontuan izan behar da ere.

3.1.5. Joko-jolasak


Joseba Etxebestek (2009: 61-64) egindako Euskal kultura tradizionalaren praktika ludomotorren sailkapenari erreparatuz, euskal tradizioan praktika ludomotorrak bereizteko erabili izan diren termino bi erabiliko dira lan honetan: *jokoa* eta *jolasa*. Bi termino hauek praxiologia motorraren ikuspegitik aztertuak izan dira, eta bien bereizketa bakoitzaren barne logikak zehaztua ikusten da, non badirudi bien arteko ezberdintasun esanguratsu bakarra lehia dela. Zulaikak dioen bezala (1985, Etxebeste, J., 2009: 63. Orrialdean aipatuta), Jokoan “*bata ala bestea*” ideia agertzen da, irabazi edo galdu (adibidez Txanpon-jokoa edo esku-pilota jokoa), eta jolasa errealitate honen antagoniko bezala agertzen da, bere printzipio nagusia “*bata eta bestea*” den (adibidez Ezkutaketa-jolasa), anbiguetatez beteriko errealitate bat “egiaz beteriko gezur bat”. Bi faktore hauek bi plazer ludiko ezberdin dituzte sustatzeko: irabaztearen plazera eta elkarbanatzearen plazera. Errealitate ludiko bi hauetatik bi termino agertzen dira Euskal kulturaren.

Jokoak berez, zenbait ezaugarri propio ditu bere barne logikan, bereizgarri egiten duena: psiko-motorra, irabazleduna (lehia), materialduna eta espazio ziurrekoa. Honen adibide ezaguna dugu kaniken edo txanponen jokoa. Lau ezaugarri hauetatik hiru dituenak *ia-jokoa* izena hartzen du, adibidez, euskal pilota, non jokoaren ezaugarri guztiak ematen diren baina sozio-motorra den.

Jolasak, aldiz, kontrako ezaugarriak dituenak da: sozio-motorra, garailerik gabekoa, material gabekoa eta espazioarekiko ziurgabetasuna duena. Honen adibide dugu ezkutaketa jolasa. Lau ezaugarri hauetatik hiru dituenak *ia-jolasa* izena jasotzen du, adibidez harrapaketa jolasa, hau eremu edo espazio ziur baten egiten delako.

Joko eta jolasen artean daudenak, ordea, *jolasa-jokoa* izena jasotzen dute. Hauek bakoitzaren bi ezaugarri jasotzen dituzte, eta adibiderik onena soka saltoa da, non jokoaren bi ezaugarri agertzen diren (materiala eta espazio ziurra), eta jolasaren beste bi (sozio-motorra eta garailerik gabekoa).

Hurrengo irudian aurretik azaldutako sailkapenaren eskema ikusi daiteke:



1.Irudia. *Joko-jolasen sailkapena barne logikaren ezaugarrien arabera, Etxebeste (2009).*

Joko-jolasek sozializazio prozesuan duten ekarpena testuinguru teorikoan berean kokatu dezakegu. Pierre Parlebasek akzio motorraren definizioa ematen duenean, elkarri lotuta agertzen diren bi kontzeptu aipatzen ditu: jokabide motorra eta egoera motorra (Parlebas, P., 2001: 41). Lehengoa, portaeraren antolaketa esanguratsua den heinean, jokalariari egiten dio erreferentzia; bigarrenak, aldiz, jokabide motor zehatz hori garatzen den sistemari, joko-jolasari. Sistema eta aktorearen ezberdintze honek Praxiologia Motorrak Gizarte Zientziekin duen lotura estua erakusten du (Etxebeste, J., 2009: 53).

Joko-jolasetan gertatzen diren ekintzak banako edo jokalariaren ezaugarri subjektiboengatik baldintzatuak daude: bere gaitasun fisikoak, bere aurreko esperientzia motorrak, bere egoera emozionala, bere harreman sozio-afektiboak edo bere itxaropenak. Bestalde, aktorearen subjektibitateak at, joko-jolasak existitzen dira, eta arau multzo edo sistema hau erabilia izan daiteke munduko beste toki batean era berean, pertsona ezberdinengatik (Etxebeste, J., 2009: 53).

Joko-jolasek sozializazioan duten ekarpena ulertzeko jokabide motorrak eta egoera motorrak era bateratuan aztertu behar dira, eta era berean subjektuak bere komunitatearekiko duen identitatearen negoziazioa (Etxebeste, J., 2009: 53).

Joko-jolasak, alde batetik, errealitatearen isla dira, non kultura zehatz bakoitzeko baloreak eta ezaugarriak islatuta ikusi daitezkeen bertan. Beste alde batetik eta aurrekoarekin erlazionatuta, joko-jolasak sozializazio prozesuaren tresna garrantzitsuak dira, non mutil eta neskek nagusi egokiak izateko jarrerak eta identitateak garatzen dituzten, dena egitura ludiko batekin estaliz. Umeek jostatzeko beharra dute, plazera behar dute, eta joko-jolasen bitartez plazer hau lortu eta euren izaerak garatzen dituzte, etorkizunera begira euren jokabideak egituratuz askotan era inkontzientean. Sozializazio prozesu honetan aldagai esanguratsu bat agertzen zaigu, lan honen oinarrietako bat izango dana: generoa. Generoa eta joko-jolasak estuki lotura daude, lehenengoa sozializazio prozesuaren ondorioetako bat delako, eta bigarrena sozializatorako tresna. Hurrengo atalean generoari buruz sakondu egingo da, generoa joko-jolasekin eta heziketa fisikoarekin nola erlazionatzen den hobeto ulertzeko.

3.2. Generoa

Kanpo logikarekin erlazionatuta, generoaren afera agertzen da, lan honetan ikergai izango delarik. Askotan izan dira aztertuak emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak, eta ezberdintasun biologiko eta psikologikoen azalpen sinplista aspalditik izan da zalantzan jarria. Jakina da, ikuspuntu transkultural batetik, ez dela existitzen “gizonena” edo “emakumezkoena” berezkoa eta unibertsa den jarrera edo jokabiderik, baizik eta jarrera hauek testuinguru, denbora eta toki zehatz batzuegatik baldintzatuak daudela (Mintegui, C., 2003: 159).

Gure genetikak zehazten ez duen jarrera hauek testuinguru sozio-kultural zehatzetan ikasiak dira, beraz gizartearen eraikuntza dira, nahiz eta oso barneratuak egon eta aldaketak ematea oso zaila den. Generoa deritza, hortaz, har edo eme jaiotako pertsonak jasaten duten portaera eta jokabide bereizketa sozialari. Kontzeptu hau dinamikoa eta aldakorra da, gizarte eta momentu bakoitzean, eta gorputz ikuskerak, sentimenduak, emozioak, afizioak edota lan edo rol espektatibak

baldintzatzen dituzte. Sexu bakoitzerako genero jarrera hegemoniko eta zilegi direnak, gizartearen mekanismo konplexu batzuetatik ematen dira; hala nola, mekanismo legalak, erlijiosoak, erritualak eta sinbologiak (Mintegui, C., 2003: 160). Esan beharra dago gaur egun oraindik ere genero eta sexu harreman binomikoak nagusitzen direla (nahiz eta askoz gehiago existitzen diren), non gizonen eredu maskulinitatea eta emakumeenean femeninitasuna nagusitzen diren. Sexualitatearekin ere zerikusia du, heterosexueltasunaren hegemoniarekin.

Aipatu beharra dago maskulinitateaz eta feminitateaz hitz egiterakoan ez dela kategoria unibertsal eta zehatz batzuetaz hitz egiten, baizik eta bizitza sozialaren prozesu dinamikoak baldintzatzen duten eraikitako kontzeptu edo ideia batzuetaz baizik (Mintegui, C., 2003: 160).

Jarduera ludikoak (joko-jolasak) eta Heziketa Fisikoa jarrera hauen eraikuntzarako eta mantentzerako mekanismo edo tresna bezala ulertuko dira, eta hau izango da lanaren beste oinarrizko hipotesietako bat.

3.2.1. Generoa eta kirola

Jarduera fisikoa eta generoa lotzen dituzten autore feminista kritikoak anitzak dira, eta asko kirolaren esparruan zentratzen dira, non genero ezberdintasunak era argienean ikusi daitezkeen, maskulinitatearen hegemonia bat ematen dela argia delako.

Jada azaldu dugun bezala, generoa eraikuntza soziala da, beraz sozializazio prozesu baten ondorioa da, non "maskulinitasuna" edo "femeninitasuna" egitura sozial zehatz batzuen eraginagatik eraikitzen den.

Nahiz eta gaur egun inoiz baino emakume gehiago izan kirol baten praktikatzailerik, gizonek oraindik ere botere kultural handiagoa dute, eta kirolean zehazki hauek denbora gehiago dedikatzen diote kirolari eta aukera handiagoa dute jarduera gehiagotan parte hartzeko emakumeek baino. Bilakaera hau kirolaren parten hartzearen estatistiketan ikusgarria da, hurrengo irudian ikusi daitezkeen bezala, Espainiaren kasuan kirol federatuaren estatistikari erreparatuz:

11.3 Personas que disponen de licencia deportiva en vigor según sexo

(En porcentaje de la población que practica deporte)

	VINCULACIÓN CON FEDERACIONES DEPORTIVAS	
	2010	2015
TOTAL	16,4	16,1
SEXO		
Hombres	23,5	22,1
Mujeres	5,5	8,9

Fuente: MECD. Encuesta de Hábitos Deportivos en España

2.irudia: *Espainian kirola praktikatzen dutenen artean lizentzia dutenen portzentzaiak sexuka, 2010 eta 2015 urteetan. Anuario de Estadísticas Deportivas. INE. Consejo Superior de Deportes.*

Ikusten da nola oraindik ere gizonen nagusitasuna nabarmena den kirol federatuetan, nahiz eta 2010etik 2015era sexuen arteko tartea jaitsi egin den. Gizonen kasuan kirola egiten dutenen %22,1ak federatu lizentzia du, emakumeen kasuan %8,9a izanda 2015ean (Consejo Superior de Deportes, 2017).

Hargreaves-ek diotenaren arabera, kirolean sexismoa eta emakumeenganako diskriminazioa erreproduzitu eta uztartzen den marko kultural garrantzitsua da. Kirola, gaur egun ere, sexu diskriminazio iturri garrantzitsua da, eta kirolaria botere maskulinoaren foku sinbolikoa. Boxeoan, errugbian, futbol amerikarrean edo hockeyan berezkoak diren bortizkeria eta indarrak gizonen lanerako eta borrokarako prestatzen ari direnaren ideia inplikatzeko du. Kirol "femenino egokietan", ordea (gimnasia, igeriketa sinkronizatua, izotz gaineko patinajea, dantza...) oreka, koordinazioa, malgutasuna eta grazia nabarmentzen dira. Gainera, emakumeak askotan bigarren mailako paperak jokatzen dituzte: zaleak, animatzaileak, laguntzaileak, aurkezleak edo sarreren arduradunak (Hargreaves, J., 1993).

Gogoratu beharra dago kultura gehienetan gorputza emakumeek euren balioa azalertzeko tresna bezala ikusia izan dela, eta orokorrean edertasuna emakumeekin erlacionatuago dagoen atribuzio bat dela (Martinez, J. eta García, A., 1997). Faktore honek eragiten du emakume edo neska askoren jardura fisikoetan parte hartzea (kiroletan batez ere) jaitea, "mari-mutil edo lesbiana" etiketa jasotzearen aurrean. Bestalde, gizonak ditugu, zeintzuk "nena" edo "mariquita" bezalako etiketak jasotzen dituzten jarrera maskulino idealetik urruntzen badira (Devís, J., Fuentes, A. eta Sparkes, C., 2005).

Hargreaves-en arabera, feminitatearen kontzepzio tradizionalaren eta kirol boterearen arteko nozioen gatazka handiena tradizionalki maskulinoak izan diren kirolean ematen da, partikularki gorputz kontaktua dutenak, edo indarraren, abiaduraren eta abileziaren handikeria inplikatzeko duenak, adibidez talde duela gehienak, borroka kirolak edo indar eta abiadura frogak. Hala ere, nahiz eta aurreiritziak desagertu ez diren, kirol hauetan guztietan emakumeen parte-hartzea handitu egin da (Hargreaves, J., 1993).

Kirol kementsu edo “maskulinoen” emakumeen parte hartzea eta hauen feminitatearen irudien arteko gatazka nabarmena da. Ez da harriztekoa “propioki femeninoak” bezala onartuak diren kirolak (tenis, gimnastika, patinajea edo igeriketa) tradizioan femeninoak diren aldizkarietan agertzen diren kirolak izatea, zeintzuk askotan emakumeak postura sexualki erakargarri eta probokatzaileretan erakusten dituzten, plazer maskulinoaren merkantzia gisa. Jarduera nagusiak esentzia femeninoarekin talka egiten ez duten horiek izan ohi dira (mantentze jarduerak, dantza eta *aerobik-a*, adibidez). Emakumearen edertasunaren eta feminitatearen kontzepzioaren eskemarekin erlazionatu dezakegu hau. Bestalde, irakurri daiteke baita emakume kirolariak (batez ere futbola edo errugbia bezalako kirolean) halaber lesbianak edo mari-mutilak direnaren ideia. Era honetan, egitura sozialek kirol identitate pertsonalak konfiguratu dituzte eta kirol komunikabideek balore patriarkal konbentzionalak indartzen dituzte. Orokorrean, masa komunikabideek kirol maskulinoaren informazioa eskaintzen dute nagusiki, hau identitate maskulinoarekin lotuz. Kirol femeninoari eskainitako arreta, ordea, minimoa da aurrekoarekin konparatuta, termino kuantitatiboetan. Gainera, gehienetan emakumeak lehenengo emakume bezala aurkeztuak izaten dira, eta ondoren, atleta bezala. Askotan emakume hauek euren sexualitatearen arabera deskribatuak izaten dira (bere edertasuna, bere hankak, bere figura...), bere gaitasun fisikoaren gainetik (Hargreaves, J., 1993).

Gaur egun ere oraindik ere maskulinitatearen hegemonia hau mantentzen da kirolean, nahiz eta hegemonia hau ez den estatikoa, garapen eta aldaketa konstantean ari den prozesua baizik. Gramscik hegemonia kontzeptua erabiltzen du, adierazteko nola kondizio historiko eta sozial zehatz batean, klase edo gizarte-sektore nagusi

batek bere lidergoa gauzatu, mantendu eta elikatu egiten duten behartzaileak edo autoritarioak ez diren beste dominazio forma batzuekin. Hauek kontrol limurtzaile bat eragiten dute, bortxazkoa edo autoritarioa beharrez, existitzen diren harreman sozialak mantentzeko oinarritzen diren uste eta baloreen produkzio eta mantentzeak baldintzatzen duena. Kasu honetan, kirola patriarkatuak bere hegemonia mantentzeko beste tresna bat dela ondorioztatu daiteke. Hegemoniaren ideia hauek, kirolean eta aisialdian askatasun eta hertsapen edo behartzearen harremanak aztertzeko baliagarriak dira (Hargreaves, J., 1993).

Gizonen hegemonia eraikia eta mantendua da maskulinitatearen irudi partikularrengatik, zeintzuk gure gizartean nagusi diren kirol motak edo kirolak hartzen duen formengatik ezartzen diren. Kirola eta Heziketa Fisikoa biak domeinu esanguratsuak dira non maskulinitatearen forma dominanteak erreproduzitzen diren, baina eztabaida edo polemikarako ingurunea ere badira (Humberstone, B., 1990: 201-202). Hortaz, nahiz eta harreman hauek dinamikoak diren eta aldaketan dauden, oraindik ere maskulinitatearen nagusitasun bat ikusten da kirolean zein Heziketa Fisikoan.

3.2.2. Generoa eta Heziketa Fisikoa

Heziketa Fisikoa ezkutuko curriculumak lantzeko aukera gehien ematen duenari diziplina da. Nahiz eta printzipioz curriculum ezberdintasunik existitzen ez diren mutil edo nesken arabera, ezkutuko curriculumak seguruenik oraindik ere gizonari posizio zentral bat ematen dio, zeinak emakumeek diskriminazio tratua jasotzea eragiten duen (Jimenez, 2004; Sanchez, C., Chiva-Bartoll, O. eta Ruiz-Montero, P., 2016an aipatua).

Lehenago azaldu dugun bezala, barne logikak jokabide zehatz batzuk eragiten ditu ikaslearengan, hauek kanpo logika batengatik baldintzatuak daudenak. Generoarekin lotuz, barne logika zehatz bat duen jarduera batek gizon edo emakume batengan sor ditzakeen esanahiak ezberdinak dira, adibidez mutil batentzako futbol partida batek duen garrantzia handiagoa izango da seguruenik neska batekin alderatuz, honek ematen dion estatusarengatik edo bere maskulinitatearen indartzeagatik. Dantza bat egiterako orduan, ordea, bere maskulinitatea zalantzan jartzea eragin dezake, beraz agian ez du gustuko izango jarduera hori, ez du motibaziorik izango.

“Generoa Heziketa Fisikoko klaseetako agente sozializatzaile garrantzitsuena da”, ondorio hau Griffinek atera zuen berak egindako ikerketa garrantzitsu batean (1989; Sanchez, C., Chiva-Bartoll, O. eta Ruiz-Montero, P., 2016an aipatua). Ondorio honetan oinarrituta, generoak Heziketa Fisikoko klaseetan duen garrantzia ulertu dezakegu, jakinda klaseetan ikasleek “euren identitate sozialen eraikuntza” ahalbidetzen duten egoeretan ikusten direla. Egoera hauek ikasleak estereotipo zehatzetan sailkatzea eragiten du (Sanchez, C., Chiva-Bartoll, O. eta Ruiz-Montero, P., 2016).

Scharagrosdkyren arabera (2004; Sanchez, C., Chiva-Bartoll, O. eta Ruiz-Montero, P., 2016an aipatua), femeninotasuna era negatiboan lotzen dituen balore batzuk agertzen dira Heziketa Fisikoan, honek maskulinoa denaren izaera positiboa goraiatuz. Egoera honek ezberdintasuna areagotzen du, antolaketa hierarkiko bat sortzen da non gizona “araua eta modelo” bezala agertzen den, eta emakumearen gainean kokatzen den. Egoera honi “maskulinitate hegemonikoa” deitzen zaio (Beltrán, V., Devís, J, Peiró C. eta Brown, D., 2012; Sanchez, C., Chiva-Bartoll, O. eta Ruiz-Montero, P., 2016an aipatua).

Beste aspektu esanguratsu bat da irakasgai honetan agertzen den bortizkeria sinbolikoa, honek gizonezkoen botere harremanak naturaltasunez hartzen ditu, eskola kirolaren kultura hegemonikoan. Gainera, emakumezkoen jarduera fisikoaren uztea gizonezkoena baino askoz nabariagoa da nerabezaroan (Beltrán, V., Devís, J, Peiró C. eta Brown, D., 2012; Sanchez, C., Chiva-Bartoll, O. eta Ruiz-Montero, P., 2016an aipatua).

Harra edo emea jaiotako pertsoneri tradizionalki eta baita gaur egun ere oraindik sozializazio prozesu bereizgarriak eman zaizkie, non gizona edo emakume “aproposa” sortzeko sexu bakoitzari rol zehatz batzuk, jarrera zehatz batzuk eta espektatiba zehatz batzuk atxikitzen zaizkio. Adibidez, Euskal kultura tradizionalan barne logika zehatz batzuk bereizi izan dira mutilek jokatzeko zituzten jokoetan eta neskek jokatzeko zituztenetan. Hori, lehen esan den bezala, sexu bakoitzak sozializazio prozesu berezi bat izan duelako da, tradizioan bakoitzak zituen rola ezberdinak baitziren (Etxebeste,

J., 2009: 67). Ondorioztatu daiteke gizon eta emakume helduak sortzeko joko-jolasen barne logikak berebiziko eragina izan duela historikoki.

Heziketa Fisikoa gaur egun ez da segregazionista, eta mutil eta nesken rolak ez dira orain dela 100 urte ziren berdinak, baina hala ere zenbait egitura mantendu egin dira, eta tradizionalki existitu diren jarrera femenino eta maskulinoak oraindik ere bizirik diraute. Horregatik, Heziketa Fisikoak erronka berri bat du, nola bere edukien barne logika gaur egun dauden behar inklusiboetara egokitu, non neska eta mutilek klaseak batera egiten dituzten, baina bakoitzarekiko gizarteak dituen eskakizunak ezberdinak diren. Generoa kanpo logikaren barnean sartzen da, baina hau ezin daiteke era banandu batean ulertu, edukien eta joko-jolasen barne logikari estuki lotuta agertzen delako, horregatik arreta jarri behar zaio barne logikari, eta hau kanpo logikarekin nola erlazionatzen den aztertu.

Horretarako irakasleak duen tresna nagusia edukia bera da, edukiaren barne logika zehatzagoak izateko. Irakasleak uneoro egin behar du hausnarketa hau: klaseetan ematen diren edukiak ze jokabide indartzen dituzte? Eduki hauek ikasle guztien beharretara daude behar sozial eta kulturei begira? Diskriminatzaileak izan daitezke eduki hauek klaseko talde batekiko? Zaila da kontraesanetan ez sartzea.

Heziketa Fisikoak, jokabide motorren pedagogia gisa, ideologia bat eskatzen du, pertsonen eta munduaren ideia bat, eta errealitate kulturala eta soziala gauzatzeko eta honi erantzuteko tresna gisa ulertu beharra dago. Generoarekin ere berdina gertatzen da, Heziketa Fisikoa sozializazio prozesuko elementu gisa, gizon eta emakumeen ezberdintasun kulturalak ere bertan islatzen dira, eta era berean tresna bezala aritzen du hauen eraikitze eta mantentzerako (Etxebeste, J. 2009: 74).

4. METODOLOGIA

4.1 Parte hartzaileak

-IPI Sansomendi ikastetxea:

IPI Sansomendi Ikastetxean Vitoria-Gasteizeko Sansomendi auzoan dagoen ikas komunitate eskola da. Integrazio zentro bat da, non kultura ezberdinetako pertsonak hezi egiten diren, gehienak kultura marginalak osaturik, bazterketa sozialean bizi direnak (ijitoak, etorkinak...). Komunitateko eragile ezberdinen artean (gurasoak, irakasleak, ikasleak, elkarte ezberdinak...) gizarteko erronkak gainditzea bilatzen da ikas komunitateen bitartez, ikasleen integrazioa, balore etikoen heziketa eta berdintasun soziala helburu. *Heziberri* proiektua erabiltzen du, kompetentzietan oinarritutako heziketa batean.

Lan honetarako hautatu den klasea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. Mailako ikasleak dira, 15-16 urteko ikasleak. Hautaketa hau alde batetik klase formalena delako egin da, Heziketa Fisikoko irakasleak berak gomendatuta. Beste alde batetik, sexuaren arabera talde orekatua da kuantitatiboki, hau da, 6 neska eta 6 mutil dira. Hala ere, behaketan aurkitutako botere desorekek argi utzi dute mutilen nagusitasuna ia jarduera gehienetan, hori izan da gaia generoa izateko irizpide nagusia.

Hortaz gain, etnia ijitokoak dira gehienak (6), eta lau hegoamerikar eta afrikar bi daude. Komenigarria da testuinguru kultural ezberdin hauek kontutan hartzea, kultura bakoitzak bere ezaugarriak dituelarik.

4.2 Prozedurak eta aldagaiak

Hasteko jardueren behaketa egin da, 2017ko Urritik 2018ko Maiatzera bitartean DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoko klaseetan. Heziketa Fisikoko klaseetako behaketa sistematizatua egin da, horretarako klaseetan egiten ziren jarduerak erregistratu (kuantitatiboa) eta behaketa subjektiboan oinarritutako oharrak hartu dira (kualitatiboa), hala nola, jarrerak, portaerak, ekintza adierazgarriak, arazoak, pertzepzioak...

Ondoren datuak aztertu egin dira generoaren perspektiba baten oinarrituta, eta autore ezberdinen publikazio eta ikerketetan oinarrituta.

4.2.1. *Analisi kualitatiboa*

Behaketa parte-hartzaile batean oinarritutako analisia egin da, IPI Sansomendi Ikastetxean egindako praktiken etnografia bat eginez. Honen esan nahi du klaseetan ikusitako testuinguru ezberdinen, egiten diren ekintzen eta parte hartzaileen sinesmenen datu deskribatzaileak lortzeko helburuarekin egindako behaketa izan dela.

Behaketa eraginkorra izateko, lehenengo ikasleekin konfiantza lortzea garrantzitsua da, hauen onarpena lortzeko eta ondorioz naturaltasunez jokatzeko. Ikasleen konfiantza totala lortzen da ikerketa batentzat datu baliagarrienak lortzeko modua.

Etnografia egiteko eguneroko oharrak hartu dira, ikasleen asistentzia kontutan hartuta, haien parte hartzea erregistratu eta behatuta, euren arteko harremanetan arreta jarritz. Genero ikuspuntutik behatutako portaerak ere erregistratu dira (mutil eta nesken ezberdintasunak, hauen arteko harremanak, behatu diren botere harremanak...).

Ikastetxearen programen, hezkidetza proiektuen, proiektu pedagogikoen eta instalakuntzen analisi bat egin da, eta DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoko programazio didaktikoarena.

Datu kuantitatiboetan oinarritutako analisi kuantitatibo bat ere egin da, datu kuantitatibo horietatik ondorio soziokulturalak ateratzeko (kanpo logika aztertzeko).

4.2.2. *Analisi kuantitatiboa*

IPI Sansomendiko DBH 4. mailan Heziketa Fisikoan jorratu izan diren praktika ludomotorren sailkapena egin da, bertan eduki bezala erabili diren joko-jolasena, alegia. Horretarako, praxiologia motorrak eskaintzen duen ikuspegi zientifikoa erabili da aldagaiak sailkatzeko. Barne logika kontzeptua erabili da horretarako, eta bere barnean akzio motorraren domeinuen arabera egin da sailkapena.

Akzio motorraren domeinuetan oinarritutako sailkapena datuen analisi egokia egiteko informazio baliagarria emango duten barne logikaren ezaugarrien arabera egin da. Alde batetik ziurgabetasunean oinarritutako sailkapen bat egin da, espazioarekiko ziurgabetasuna eta ziurgabetasun soziala. Hauen barnean aldagai hauek agertzen dira: espazio ziurra, espazio ziurgabea, psiko-motorra eta sozio-motorra (eta sozio-motorraren barnean kolaborazio-oposizio harremanak agertzen dira aldagai gisa, analisi sakonago baterako). Bestalde, memoriaren sailkapen bat egin da, memoriadunak eta memoria bakoak bereiziz. Bukatzeko Etxebestek proposatutako joko-jolasen sailkapen bat egin da, hauek barne logikaren ezaugarri zehatz batzuegatik bereiziak direnak.

Ondoren, datuak *Excel* programan sartu eta datuak interpretatzeko grafikoak eta taulak egin dira. Datuen portzentaiak atera dira eta hauek interpretatu egin dira, generoaren ikuspuntua oinarri izanik autore ezberdinen ekarpenak eta ekarpen propioak eginez (datu kuantitatiboetan oinarritutako analisi kualitatiboa).

5. EMAITZAK

Atal honetan Urriaren eta Apirilaren bitartean IPI Sansomendi ikastetxeko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoan 2017ko Urritik 2018ko Maiatzera bitartean erregistratutako edukiak eta behaketak aztertuko dira; kanpo eta barne logika ezberdinak generoarekin erlazionatuko dira, autore ezberdinen aipamenak erabiliz eta ondorio pertsonalak gehituz.

5.1 Praktika ludomotorren analisisa kanpo logikaren arabera

Hasteko, praktika garaietan bizi izandako esperientziatik abiatuta, klaseen egituraketaz hitz egitea komenigarria da, testuinguruan sartzeko. DBH 4. Mailan 12 ikasle dira, 6 mutil eta 6 neska. Saioak Lakuako gizarte zentroan egin dira, bertako areto futboleko zelaian edo bertako tatamian nagusiki (nahiz eta euskal pilotako klaseak Txukun Lakuako frontoian egiten dituzte), hau da, ingurune ziur batean. Klaseak nahiko laburrak dira, 50 minutu ingurukoak, eta 2 klase astean egiten dituzte. Jarduerak bi atal nagusitan banatzen dira: beroketa eta atal nagusia. Beroketan bi buelta ematen dituzte korrika eta mugimendu artikularrak egiten dituzte, eta zati

nagusiak bi motatakoak izaten dira: batzuetan irakasleak gidatutako helburu batekin (adibidez kirol bat ikasteko jarduerak, edo indarra lantzeko ariketak adibidez), eta beste batzuetan saio “askeak” ziren, non klase osoa jokatzeko ematen zuten (talde dueluetara ia beti).

Generoari erreparatuz, esan bezala kuantitatiboki kopuru berdina dira, eta klaseetan ez da segregaziorik ematen jarduerak egiterako orduan, sexuaren arabera. Segregazio bakarra aldageletan ematen da, mutilek mutilena eta neskek neskena erabiltzen dute. Edukiak denok batera egiten dituzte uneoro. Ez dago sexuaren araberako curriculumik, denontzako berdina da. Irakasleak ez du inolako diskriminazio espliziturik erakusten neskengan, eta tratua behintzat berdintasunezkoa dela esan daiteke. Hala ere, kirol jokoak egiten dituztenean, mutilen nagusitasuna argia da. Adibide bat jartzearen, futboleko mutilek baloiaren jabetza gehiago izaten dute, gehiago mugitzen dira eta gol gehiago sartzen dituzte. Nesken interesa murriztagoa dela ikusi da euren parte hartzean orokorrean. Ia jarduera guztietan behatu da mutilen boterea handiagoa dela, beraz nesken artean gutxiagotasun-konplexua dagoela ondorioztatu daiteke. Neskek, ordea, hitz gehiago egiten dute klasean (bai euren artean, bai denontzako), aspektu horretan ez dute inolako diskriminaziorik jasaten, ez da lotsarik edo gutxiagotasunik antzeman aspektu horretan.

Maskulinitate eta feminitateari erreparatuz, harreman binomikoak antzeman dira ia kasu guztietan, hau da, mutilak joera maskulinoak erakusten dituzte eta neskek femeninoak. Jantzkeran oso nabaria da ezberdintasun hau, baita ilean (neskek ile luzea eta mutilek ez), kosmetikoen erabileran... Ez da antzeman homosexuala den inor, edo genero eta sexuen harreman binomikoa zalantzan jartzen duen inor (*LGTBI* adibidez). Kirol ohituretan ezberdintasunak ere antzeman dira, mutilek orokorrean kirol jarduera gehiago eginez, eta maskulinitatearekin erlazionatuago daudenak (futbol, pisu altxatzea, korrika, kapoeira...), eta nesken artean, kirolen bat praktikaturako bat besterik ez dago (eskubaloia), eta gaur egun nesketako inork ez du kirolik praktikatzeko Heziketa Fisikoko klaseetatik kanpo. Horretaz gain, klaseko nesketan gain-pisu egoerak ikusi dira ia neska guztietan, mutilek ordea normopesoan daude. Klaseetan ematen den parte hartzean eta interesean ere ezberdintasunak behatu dira, mutilek interes eta parte hartze handiagoa dutelarik.

Azkeneko hilabetean irakasleak “kirol joko inklusiboak” erakutsi zituen, talde duela inklusiboak, alegia. Honen adibide dira *Ultimate Frisbi*, Artzikirol edo *Colpbol*. Proposamen interesgarriak izan dira, eta ikusi izan da nola orokorrean guztiek izan dute parte hartze handiagoa. Hala ere, abileziaren arabera nabarmentze bat ere ikusten zen mutilen artean, hauen nagusitasuna mantenduz.

Irakasleak lehiadun jarduerak hartzen ditu oinarritzat, bere iritzian lehiak motibatu egiten ditu. Klase gehienetan jarduera lehiakorrak egiten dituzte (bai DBH 4. Mailan bai beste mailetan ere).

Orokorrean, mutil eta nesken harremanak osasuntsuak dira DBH 4. Mailan, eta behaketa guztian genero bortizkeriarik edo tratu txarrik ez da ikusi. Talde heterogeneoa izan arren, neska eta mutilen artean solasean ibiltzen dira, eta askotan batera egoten dira neska eta mutilak. Hala ere, beste batzuetan talde txikiak ikusi dira, non sexu arteko bereizketa ikusi daitekeen.

5.2. Praktika ludomotorren analisia barne logikaren arabera

Behaketa kualitatibo eta parte-hartzailearekin batera, joko-jolasak erregistratu egin dira, eta ondoren sailkatu egin dira. Akzio motorren domeinu ezberdinak hautatu egin dira hauek generoaren ikuspegitik egindako analisi baterako duten garrantziaren arabera, eta datuak lortu ondoren hauek interpretatu eta ondorioak atera dira. Aukeratutako aldagaiak edo domeinuak espazioa, harremanak eta denbora izan dira. Azkenik, joko-jolasen sailkapena egin da, Etxebestek proposatutako barne logikaren bereizketan oinarrituta (Etxebeste, J. 2009: 61), jarduera bakoitzaren izena eta maiztasuna bereizita.

Datuen analisi egokirako lehenengo eta behin hautatutako aldagai bakoitzaren garrantzia justifikatu da, gero aldagai bakoitzaren barnean bereizten diren aldagaiak identifikatu dira, eta hauen justifikazio teorikoa egin da, generoarekin erlazionatuz. Gero datuak aurkeztu egin dira, eta datuen irakurketaren arabera ondorioak atera dira, bai autore ezberdinetan oinarrituz eta baita ondorio propioak ateraz ere.

5.2.1. Espazioaren analisia

Hasteko, jarduerak egiten ziren espazioa aztertu egin da. Espazioa kulturalki garrantzi handia duen ezaugarri bat da, eta kultura bakoitzak espazio ziur eta ziurgabeei eman dizkion garrantziak kultura horretako joko-jolasetan islatuta agertzen dira. Espazioaren analisiak aukera emango digu ulertzeko IPI Sansomendi Ikastetxean zeri ematen zaion garrantzi handiagoa, eremu ziurrei edo eremu ziurgabeei.

Hemen, ondorioz, bi aldagai nagusi agertzen dira: espazioarekiko ziurgabetasuna duten joko-jolasak eta espazio ziurrean egindakoak. Lehenengoan jokalaria bere ingurunea irakurri eta deskodetu egin behar du (ehizaren edo ezkutaketaren kasuan adibidez), non inguruneak informazioa uneoro ematen duen, eta irudimena, ausardia eta arintasuna bezalako abileziak garatzeko aukera ematen du. Bestalde, ziurgabetasun bako espazioak daude, non espazioaren informazioa beti berdina izango da, jokalaria doitu denean hau ondorioztatu egingo duelarik (adibidez harri altxatzean). Ingurune ziur bat bezala ikusten da azkeneko hau, eta honek berrikuntzarako energia gutxitzen du eta errepikapenerako eta estereotipo motorrentzako leku aproposa da (Etxebeste, J. 2009: 57-58).

Adibidez, Etxebesteren analisiari erreparatuz, Euskal kultura tradizionalen etxeak espazio ziurra adierazten zuen, bizitzaren eta familiaren erdigunea, kanpoko gaitzetatik babesgunea zena. Etxea izan da euskal kulturaren erdigunea, eremu ziurrari garrantzi handiagoa emanez (horregatik euskal joko-jolas tradizionaletan eremu ziurrekoak gehiago dira, joko-jolas guztien %80 inguru). Espazio ziurgabea ordea, basoa, natura, etxetik urrun zegoena, espiritu eta izaki gaiztoak eta arriskuak gordetzen zituzten eremuak bezala ulertu izan dira, eta beldur edo ikuskera hori joko-jolasetan islatuta dago. (Etxebeste, J., 2009: 57-58). Euskal tradizioan behatutako gizon eta emakumeen ezberdintasunak erakusten du tradizioan kaleak, plazak, parkeak tradizioan etxeen interesak kanpokoan aurrean defendatzeko rola gizonak bete izan dituen espazioa dela. Etxea, ordea, tradizioan etxeen arteko harremanak eta zaintza rola emakumeak bete izan duen espazioa dela. Gizonari ekoizpen lanen ardura egotzi izan zaio eta emakumeari ugalketa lana. Bi funtzio hauen arabera bakoitzak espazio bat bete izan du, gizonak kalea edo plaza eta emakumeak etxea (Santeodoro, Y., 2015: 187). Etxearen eta plazaren eredu hauetan bietan agertzen da espazio ziurra joko-jolasetan islatuta, beraz espazio ziur eta ziurgabeen bereizketa

eginez soilik ezin daiteke ondorio handirik atera generoaren aldetik, beste ezaugarri batzuen analisisa egitea ezinbestekoa da.

Gaur egun, ordea, gizarte modernoan feminismoak izan dituen borroken ondorioz eta gizartearen garapenaren ondorioz, gizakiak espazio guztiak betetzeko eskubidea dugula aldarrikatu da, eta emakumeak tradizioan gizonarenak izan diren esparruak betetzen ditu, eta alderantziz (emakumea lan esparrura murgiltzearekin adibidez).

Naturako espazioetan gizonek gaur egun duten parte hartze handiagoak hauek espazio naturalak betetzeko joera handiagoa adierazten du, horrela ikusi daiteke adibidez 2012an EAEn naturan egiten diren kiroleetan parte hartze mailak sexuaren ikuspuntutik aztertuta. Honek espazio naturala gizonen eremua dela adierazten duenaren hipotesia adierazten du (Santeodoro, Y., 2015: 187). Espazio naturala edo ziurgabea, ordea, jolasaren ezaugarrietako bat da, non elkarbanatzeko plazera uztartzen den, eta hauek ez dute genero bereizketa esanguratsurik erakusten. Beraz ondorioztatu daiteke bai neska eta bai mutilek inolako genero aurreiritzi eta estereotipo barik elkarrekin jolasteko eremu aproposak direla jolasak, euren barnean eremu ziurgabea ezaugarri propioetako bat izan delarik tradizionalki (Etxebeste, J., 2009: 67).

Datu bilketa eta analisisa egin ondoren, emaitza hauek lortu dira:

1.Grafikoa. IPI Sansomendiko DBH 4ko Heziketa Fisikoan 2017ko Urritik 2018ko Maiatzera bitartean erregistratutako joko-jolasen espazioarekiko harremanaren sailkapena, non espazio ziurrekoak %94,4a diren (34 jarduera) eta espazioarekiko ziurgabetasuna dutenak %5,5a (guztira 2).. Lagina 36.



Grafikoan ikusi daitekeen bezala, jardueren %94,4a espazio ziurrean egiten da (guztira 34 joko-jolas), eta espazio ziurgabeen egin direnak %5,5a besterik ez dira (guztira 2). Honek esan nahi du IPI Sansomendi Ikastetxean garrantzi handiagoa ematen zaiola espazio ezagutu eta zibilizatuei espazio arrotz edo naturalei baino. Hiriguneko eremu batean (Vitoria-Gasteiz) kokatutako ikastetxe batean ez da oso arraroa jarduera gehienak eremu ziur batean egitea, ikasleak eremu zibilizatu batean bizitzeko jokabide motorren transferentzia bilatuko delako, eremu naturalak (mendiak, basoak, ibaiak...) baztertuz, hauetan moldatzen jakiteko beharra txikiagoa delako gaur egun.

Behatutako Heziketa Fisikoa, ondorioz, gizakiak eraikitako espazioen hormen artean gauzatu da. Familia etxea den espazio pribatua eta ziurrean eraikitzen den bezala, irakasle eta ikasleek familia moduko bat osatzen dute, non ikasleek egunero ordu kopuru handia ematen duten bigarren etxe moduko bat osatzen duen ikastetxeak. Ikasleak espazioarekiko ziurgabetasun ezak sustatzen duen adimenean eta afektibitatean hezi direla baieztatzen da (Santeodoro, Y., 2015).

Generoari dagokionez, Euskal tradizioan bai gizonen eredu (jokoak) eta bai emakumeen eredu (jolasa-jokoa) bietan joko-jolas gehienak espazioarekiko ziurrak izan dira tradizionalki. Espazioarekiko ziurgabetasuna edo naturako jarduerak tradizionalki gizonen esparrua izan dira, hauek etxetik kanpoko inguruneak hartu izan dutelarik (adibidez, ehizan). Emakumeak, ordea, tradizionalki espazio naturalak saihestu egin ditu (Santeodoro, Y., 2015: 187). Oinarri hau kontuan izanda, esan daiteke IPI Sansomendin emakumeen eredu jarraitzen dela espazioari begira, non espazio ziurrekin lotutako adimena lantzen den. Hala ere, espazio ziurrak ere gizonen eredu ludikoetan islatzen dira (jokoak), ondorioz gizonen eredu tradizionala ere lantzen dela esan dezakegu.

Espazioaren behaketa sakonago bat beharrezkoa da genero eredu bereizketa argiago bat egiteko. Banan-banan jardueren espazioa aztertuz gero (ikusi 1. Taula, 37. orr), ondorioztatu daiteke erabilitako espazio gehienak tradizioan plazaren ereduarekin erlazionatuta daudela (frontoia, zelaia edo kantxa, herri kirolak egiteko plaza...), guztira eremu ziurrean egindako 34 jardueretatik 22 frontoian, kantxan edo herriko plazetan egiten diren jarduerak izanda. Jarduera hauek era publikoan egindako jarduerak izan dira, etxeak ez diren aurrean, harrapaketa edo

soka saltoarekin alderatuz adibidez. Nahiz eta bai gizonen bai emakumeen ereduaren espazio zurrak nagusi izan, plazako eta etxeko ereduaren bereizketa ikusi daiteke espazioaren analisi zehatzago bat eginez. Hau horrela, ondorioztatu daiteke gizonen eredu tradizionalak nagusitasuna hartzen duela IPI Sansomendiko Heziketa Fisikoan espazioari begira, non kaleko edo plazako espazioak nagusitzen diren, nahiz eta espazio horren erabilera “etxekotu” bat egiten den, ikuslego edo kanpokoaren aurrean “familiaren” interesak defendatu behar ez dituztelako, baizik eta familia bat bezala aritzen diren. Ondorio argiagoak ateratzeko analisi sakonago bat eskatzen dute aldagai hauek, adibidez harreman sozialena edo denborarena.

Espazioarekiko ziurgabetasuna dutenak, aldiz, ezkutaketa eta poliziak eta lapurrak dira (ikus 1. taula). Eredu ziurgabearen egindako jolasetan, gainera, lehiakortasuna oso baxua dela ikusi da Euskal joko-jolas tradizionalen ikerketan, joko-jolas guztien %2,9 a soilik garailadunak eta espazioarekiko ziurgabetasuna zutenak izanda. Hori gertatzen da espazioarekiko ziurgabetasuna duten garailadun jarduerak nahi barik ingurune gero eta zurrago batera ekartzeko joera dagoelako (adibidez estropadak itsadarretan egitea). Espazioarekiko ziurgabetasunean eta garailadun jarduerak egindako jolas hauek genero aldetik neutro agertzen dira, eta proposamen inklusibo egokiak dira generoaren aldetik, beraz hauek programazioan sartzea ideia egokia denaren hipotesia agertzen da (adibidez, *orienting* jarduerak, mendiko ibilbideak, naturako abentura-anitzak...).

5.2.2. Harreman sozialaren analisia

Jardueretan agertzen diren besteekiko harremanak aztertu egin dira. Garrantzitsua da kultura bateko joko-jolasen besteekiko harremanak aztertzea, hemen kultura horrek harreman sozialei ematen dizkion garrantzi eta esanahiak islatzen baitira. Kultura zehatz batean banakoari edo taldeari ematen zaion garrantzia islatzen da, izan ere. Harreman sozialaren analisia IPI Sansomendi ikastetxean banakoari eta kolektiboari ematen zaion garrantzia emango du.

Horregatik aukeratu egin da aldagai hau, eta bere barnean bi aldagai bereizten dira: psiko-motorrak edo sozio-motorrak diren joko-jolasak. Psiko-motorrak dira bakarrik egiten direnak, inoren beharrik gabe (adibidez diaboloa), non elkarrekintza motor esentzialik ez dagoen (Parlebas, P., 2001: 371) eta sozio-motorrak dira

besteekin harremanetan egiten direnak, hau da, besteekiko harremanak beharrezkoak dira joko-jolasa aurrera eramateko (adibidez futbol partida bat).

Euskal kulturaren adibidez, kolektiboari garrantzi handiagoa eman zaio banakoari baino, eta hori joko-jolasetan islatzen da, erregistratutako Euskal joko-jolas tradizionalen %78a sozio-motorrak eta %22a psiko-motorrak direlarik. Harremanak historikoki zerikusia izan dute generoarekin ere.

Euskal tradizioan oinarritutako ikerketan gizonen ereduaren (jokoaren eredu) banakoari garrantzi handiagoa eman izan zaio, eta emakumeek harremanetarako eta kolaboraziorako joera handiagoak izan dituzte historikoki (jolasa-jokoaren eredu) (Etxebeste, J. 2009: 67). Emakumeak sozio-motorrak diren jarduerak egin izan ditu nagusiki, izan dituen gizarte rolagatik (familiaz zaintzea, etxea zaintzea...). Gizonek, ordea, banakoari garrantzi handiagoa eman izan diote tradizionalki, non banakoaren merituak eta ahalmenak goraipatu izan diren (*bere burua eraikitzen duen gizonaren eredu*), hau gizonen eredu izanik (Etxebeste, J., 2009: 65-68).

Behatutako jardueretatik datu hauek lortu egin dira:

2.grafikoa. IPI Sansomendiko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoan 2017ko Urritik 2018ko Maiatzera bitartean erregistratutako joko-jolasen besteekiko harremanen analisia, non jarduera psiko-motorrak %11,1a diren (4) eta sozio-motorrak %88,9a (32). Lagina 36.



Joko-jolas guztien %88,9 (guztira 32 joko-jolas) sozio-motorrak dira, psiko-motorrak direnak ordea, %11,1a adierazten dute (guztira joko-jolas bakarra). Honek


joko-jolas sozio-motorren nagusitasuna adierazten du. Honek esan nahi du IPI Sansomendi ikastetxean Heziketa Fisikoan garrantzi handiagoa ematen zaiola kolektiboari banakoari baino. Generoaren aldetik, Euskal tradizioan oinarrituta esan daiteke emakumeen eredu erreproduzitzen duela harreman sozialei dagokionez.

Hala ere, joko-jolas sozio-motorren barruan harreman ezberdinak agertzen dira, eta genero aldetik analisi sakonago bat egiteko garrantzitsua da joko-jolas sozio-motorren sailkapen bat egitea. Kultura bateko harreman sozialetan aurkakotasun eta kolaborazioaren inguruan dituzten ulerkerak joko-jolasetan islatuta agertzen dira, eta genero bakoitzak ikuskera ezberdinak ditu bi domeinu hauen inguruan ere. Hemen hiru aldagai bereizten dira: lehenengoak elkar laguntzearen ideia inplikatzeko (kolaborazioa), non helburu bat lortzeko elkarrekintzan jarduten den (adibidez soka-saltoa), eta komunikazio motorra beharrezkoa den. Bigarrenean, ordea, elkarrekintza badago baina honek aurkaritzaren ideia inplikatzeko (oposizioa), non *bata edo bestearen* ideia agertzen da, bata bestearen gainetik geratuz (adibidez borroka bat), kontrakomunikazioa nagusituta. Hirugarren aldagaiak aurreko biak sartzen ditu bere baitan (kolaborazio-oposizioa, adibidez futbol partida bat).

Generoari dagokionez, oposizioa gizonen ereduaren barnean ulertua izan da Euskal tradizioan, non gizona etxetik kanpo etxearen eta familiaren interesak defendatzen zituenaren ideia agertzen da (*plazagizona* terminoak esaten duenez, eta ez da kasualitatea emakumeentzako termino berdina ez egotea euskaraz), eta horretarako kanpokoekin edo arrotzekin konfrontatu egiten zuen. Emakumearen eredu tradizionala etxeari eta familiaren zaintzari dagokio (*etxeakoandre* terminoak adierazten duenez), non kolaborazioa beharrezkoa zen familian eta etxean batasuna egoteko, Etxebestek *Juegos deportivos y socialización: el caso de la cultura tradicional vasca* artikuluan dioenez (Etxebeste, J., 2009: 65). Eredu tradizional hauek Europako beste kultura batzuetara aplikatu daitezke, non antzekotasun asko ageri dira tradizionalki genero egituretan eta baita hauen joko-jolasetan noski.

Datu hauek lortu dira jardueren analisisian:

3.grafikoa: IPI Sansomendi Ikastetxeako DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoan 2017ko Urritik 2018ko Maiatzera bitartean proposatutako joko-jolasen sailkapena harreman sozio-motor moten arabera, bertan kolaborazioa %6,2koa da (2), kolaborazio-oposizioa %75a (24) eta oposizioa 18,8a (6). Lagina 32 (joko-jolas sozio-motorrak).



Emaitza hauek antolatuta, behatu daiteke nola joko-jolas sozio-motorren %6,2a kolaborazio hutsekoak diren (2 jarduera), %75a kolaborazio-oposiziozkoak (guztira 24) eta oposizio hutsekoak %18,8 (guztira 6). Era argi batean ikusten da nola kolaborazio-oposizioak nagusitasuna duen (honen adibide nagusia talde dueluak dira). Hala ere, komentatu beharra dago oposizio hutseko jarduerak kolaborazio hutsekoak baino gehiago diren. Kolaborazioa joko-jolas psiko-motor guztien %82,2ean agertzen da, eta oposizioa %93,8an. Honek esan nahi du IPI Sansomendiko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoak oposizio harremanei ematen diola garrantzi handiagoa, kolaboraziozkoen baino, nahiz eta jarduera gehienak bi hauek konbinatzen dituzten.

Ondorioz, harreman sozio-motorren baitan esan dezakegu IPI Sansomendi Ikastetxean maskulinitatearen eredu tradizionala indartzen dela emakumeena baino, oposiziozko joko-jolas gehiago praktikatu, eta honek gizon eta emakumeen botere harremanetan eragina du, gizonen ereduak indartuz. Lehenengo grafikoarekin lotuta, esanguratsua da psiko-motorrak diren joko-jolasak gehiago dira kolaborazio hutsekoak direnak baino (4 eta 2 hurrenez hurren), eredu maskulinoa indartzen denaren beste adibide bat.

5.2.3. Denboraren analisia

Oposizioaren printzipioak denboraren harremanekin zerikusia du. Kultura baten joko-jolasen denboraren analisia egitea garrantzitsua da, kultura horretan denboraren harremanak nola ematen diren islatzen baitute haren joko-jolasek (zenbat

garrantzi ematen zaion bizitza materialari, espiritualari, kausalitate edo kasualitateari, denbora lineal edo ziklikoari...), eta genero bakoitzean nagusi diren ulerkerak ere islatzen dituzte, jokalarien generoa eta genero bakoitzak gehien praktikatzeko dituen jarduerak aztertuz. Denboraren analisiak IPI Sansomendi Ikastetxean denbora kausalari edo kasualari emandako garrantziak aztertu ahal izango da, gero honek generoan duen papera aztertu ahal izateko.

Denbora joko-jolasetan bi modu nagusitan agertu daiteke: memoriadunak eta memoria gabeak. Memoriadun joko-jolasetan (kausalak edo garailadunak) arauak berak joko-jolasaren bukaera zehazten dute (adibidez esku pilotan 22 tantotara heltzea), eta hau gertatzen denean, garailaduna zehazten da. Ekintza guztiak irabazle hau aurkitzera bideratuta daude, eta arrakasta finala aurretik pilotutako arrakasta txikiagoen batuketak adierazten du (adibidez esku pilotan tanto bakoitzak), denbora lineal batean antolatuz. Bestalde, existitzen dira joko-jolas batzuk zeinen bukaera ez duen araudiak zehazten (adibidez harrapaketa). Joko-jolas hauek berriro hasten dira etengabe arauetatik at dagoen elementuren batek eteten duen arte (afaltzeko ordua heltzea, euria egiten hastea, partaideen adostasuna...). Hemen ekintzak ez daude arrakasta final batera bideratuak, ez dago irabazlerik, eta ekintzak ez daude era lineal batean antolatuak, ez dute kausalitatearen printzipioa jarraitzen, Joseba Etxebestek dioen bezala, beraz kausalitatean oinarritzen dira, eta ez dute irabazlerik (Etxebeste, J., 2009: 59-60). Bereizketa hau oso garrantzitsua da joko eta jolasen ezberdintasun esanguratsu bakarra delako, eta jarduerak bi multzo nagusitan banatu daitezke: lehiakorrek direnak (garailadunak, memoriadunak edo kausalak) eta lehiakorrek ez direnak (garailerik gabekoak, memoria gabeak edo kasualak).

Euskal kulturako joko-jolas tradizionalak egindako ikerketan joera esanguratsu bat ikusi izan da, non mutilek memoriadun (irabazledun) jokoetara gehiago jokatzen zuten neskek baino, azkeneko hauek memoria bako jolasetara gehiagotan jolastuz. Sozializazio bereizgarri honek adierazten du gizonak euren emozioak, euren emozioen deskarga, drama eta bukaera sentimentalak hasiera eta bukaera bat duen helburu batekin erlazioatuko dituztela hein handi batean, dena laburbilduko duen emaitza bati (Etxebeste, J., Del Barrio, S, Urdangarin, C. et al., 2014). Izan ere, aurkaria (kanpokoa) irabazteko ereduak ez du ahultasunerako lekuri uzten, eta hori da, hain zuzen ere, gizonari egotzi izan zaion giza genero eredu (Santeodoro, Y., 2015: 234).


Beste alde batetik, emakumeen joera izango da, euren emozioak inolako harreman kronologiko bako kondaira afektiboen batura batean antolatzen, inolako kausa barik, gehigarria izan barik, eta eredu globalago batean oinarrituz, zeinek elementu gehiago hartzen dituen kontutan (Etxebeste, J., Del Barrio, S, Urdangarin, C. et al., 2014). Hau genero ezberdintasunaren adibide bat da, gizartearen eraikuntza dena, beraz fenomeno soziologikotzat hartuko dugu.

Euskal tradizioan oreka bat mantendu izan da, non garailedun joko-jolasak guztien %55a eta garaile bakoak %45a izan dira (Etxebeste, J., 2009: 60). Gaur egun desoreka argi bat dago gizartean, non denbora kausalari garrantzi handiagoa ematen zaion (emaitzei, ondorioei, bizitza materialari...), eta hori gaur egun praktikatzen diren joko-jolasetan islatzen da, eta baita ere gizartean hegemonikoak diren joko-jolasetan, kirolean (instituzionalizatutako joko-motor lehiakorrak).

Feminitatearen estereotipo nagusian ez da "irabaztea" emakumeen propio den balore bat bezala ikusten orokorrean. Bestalde, diskrezioa, modestia, besteei laguntzea banakoaren gainetik, dotoretasuna, grazia eta alaitasuna indartzen dira. Horrela, lehiaren esanahia eta honi dagokion denboraren antolaketak interes gutxi sortzen du emakume askorengan, eta jarduerak hautatzerako orduan, euren sozializazio prozesuan lortutako baloreekin lotuago agertzen diren jarduerak hautatzen dituzte normalean. Hau frogatzeko kirol estatistikak behatzea besterik ez dago, non 2014an egindako ikerketan jarduera fisikoa egiten zuten gizonek %25a lehiaketetan parte hartzen dutela ikusten da, eta emakumeen kopurua %10 da. Kirolarengatik (kirol-joko instituzionalizatu eta lehiakorrak) duten interesa ezberdina da baita ere, gizonen %70ak kirolarengatik interesa dutelarik, eta emakumeetan %41ak soilik (García, M., Puig, N., Lagardera, O. et al. 2017).

Laburbilduz, gizonen eredu kausalitatean oinarritzen den nagusiki, eta emakumeena kasualitatean. Horregatik denboraren harremanak aztertzeak garrantzi handia du generoaren harremanak ulertzeko. Hurrengo datuak lortu izan dira ikastetxeko analisitik:

4.grafikoa: *IPI Sansomendi Ikastetxeko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoak Urritik Maiatzera bitartean erregistratutako joko-jolasen sailkapena denboraren arabera, memoriadunak %75 (27) eta memoria gabeak %25 (9) direlarik. Lagina 36.*



Ikusten den bezala, praktiken denboraren sailkapenean desoreka nabarmen bat ere antzeman daiteke, memoriadun jokoan alde, hauek guztien %75a izanik, guztira 27 joko memoriadun edo irabazledun praktikatu izan direlarik. Bestalde, memoria gabeko jolasak %25a betetzen dute, joko-jolas irabazledunak nagusi izanik.

Aurreko azalpenean oinarrituz, garailean edo lehiadun joko-jolasak gizonen eredu tradizionalak direla ondorioztatu daiteke, eta maskulinitatearen eredu direla ere esan daiteke, jokoaren eredu uztartuz (*bata edo bestearen* ideia, irabazteko plazera). IPI Sansomendi ikastetxeko Heziketa Fisikoak tradizionalki maskulinitatearen ereduarekin erlazionatuta dauden edukiak nagusi dituela ikusten da kasu zehatz honetan, non lehia sustatu egiten den klaseetan, irabaztearen plazerari elkarbanatzearen plazerari baino garrantzi handiagoa emanda. Honekin botere desoreka bat eragiten duela ondorioztatu daiteke, maskulinitatearen alde egiten duen desoreka, mutilen alde.

Esan beharra dago ikastetxearen denbora egutegi eta ordutegiak antolatzerakoan gizarte modernoaren antolaketa irizpidea jarraitu duela (kausala), non kausa-ondorio printzipioak agertzen diren (klaseak minututan eta orduetan antolatuak, egutegi kausala, jarduera gehienak memoriadunak, ebaluatzeko testak, azterketak...). Gizarte moderno eta kapitalistan denbora kausalak garrantzi handiagoa hartzen du, bizitzaren antolaketa kausalagoa da, denboraren neurketa metrikoak garrantzi handia hartzen du, eta eskolan, kirolean eta esparru gehienetan emaitzak edo produktibitatea bilatzen dira. IPI Sansomendi ikastetxeak gizarte eredu hau islatzen du, eta hori

Heziketa Fisikoan proposatzen diren edukietan islatzen da, generoen arteko desorekan gizonaren alde eginez aspektu honetan.

5.2.4. Joko-jolasen sailkapena

Joko-jolasen sailkapena egitea interesgarria da, aurreko ezaugarri guztiak era globalago batean biltzen dituztelako, eta ondorio gehiago atera daitezkeelako. Joko-jolasak, esan bezala, kulturaren isla dira, eta kultura horren berezko ezaugarriak erakusten dituzte, sozializazio tresna bat diren heinean. Era berean genero harremanen isla ere badira, non joko-jolas mota ezberdinen generoaren arabera parte hartze ezberdinak aurkitu izan dira, sexu bakoitzerako sozializazio prozesu ezberdinak bereizi izan direlako tradizionalki, eta era berean genero bereizketa esanguratsurik gabeko joko-jolasak aurkitu diren; joko-jolas mistoak, sexuen arteko elkarbizitzan laguntzen dutenak (Etxebeste, J., 2009: 66-67).

Joko-jolasen barruan bost aldagai bereizten dira, marko teorikoan azaldutako barne logikaren irizpideen arabera sailkatuak: jokoak edo ia-jokoak, jolasa-jokoak eta jolasak edo ia jolasak.

Euskal tradizioaren ikerketen arabera, mutilek tendentzia nabarmen bat dute jokoak eta ia-jokoak praktikatzeko. Honek esan nahi du mutilak irabaztearen plazeraren inguruan heziak izaten direla. Euskal tradizioan, *plazagizon* terminoa agertzen da honekin lotuta, non gizonek bere etxearen interesak defendatzen zituen kanpokoei begira. Bai egoera psiko-motorrean, bai sozio-motorrean, espazioarekiko ziurgabetasun ezan, garailearekin eta objektu espezializatuekin jardundako arloa gizonekin hertsiki lotuta dago, aurkaria (kanpoko) irabaztearen plazera gizonen eremua izanik (Santeodoro, Y., 2015: 230).

Neskek, ordea, tendentzia nabarmenagoa dute jolasa-jokoak praktikatzera (adibidez soka-saltoa). Jolasaren egoera sozio-motorra eta irabazlerik gabeko ezaugarriak eta jokoaren espazioarekiko ziurgabetasun eza eta objektuarekin dituen ezaugarriak emakumeekin lotuta dagoen jolasa-jokoa islatzen dute. Etxekoak zaintzearen funtzioa *etxeakoandre* gizarte ereduaren jokabidearen isla da: egunero errepikatzen den lanaren plazeraren balioa emakumeari egotziz (Santeodoro, Y., 2015: 187).

Jolasek eta ia-jolasek ez dute sexu tendentzia esanguratsurik, beraz ondorioztatu daiteke bai mutilek bai neskek erabiltzen dituztela (Etxebeste, J., 2009). Eredu hau “etxekoen arteko ereduaren jokabidea da. Lagun eta senideen aurrean euskaldunok dugun jarrera erakusten du. Arlo mistoa dela” ikusi zuen Garagorrik (2004, Santeodoro, Y., 2015: 230. orrialdean aipatua). Hauetan egoera sozio-motorra nagusitzen da, edozein eremu fisikotan (askotan eremu ziurgabeen), objektu barik eta irabazle barik jarduten den arloa. Denek (etxekoak) elkarrekin aritzeko jolasa gizonarekin zein emakumearekin lotuta dago, emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitzaren isla izanik (Santeodoro, Y., 2015: 230).

Datu bilketaren ondoren hurrengo sailkapena lortu da:

1.taula: *Joko-jolasen sailkapena barne logikaren arabera, non jokoak edo ia-jokoak (guztira 24 aldiz proposatuak), jolasa-jokoak (6 aldiz) eta jolasak edo ia-jolasak (6 aldiz) bereizten diren bere izenagatik, ezaugarriengatik eta jardueren maiztasunagatik.*


Joko eta ia-joko				Jolas eta ia-jolas		Jolasa-jokoak	
Izena	Maizt.*	Izena	Maizt.	Izena	Maizt.	Izena	Maizt.
Eskubaloi Partidua – A,b,C,D	1	Buztana kentzera – A,b,C,D	1	Haria moztera – A,b,c,d	1	Sokasaltoa – A,b,c,D	2
Futbol partidua – A,b,C,D	2	“Melakeef” (Tabas) – A,B,C,D	1	Ezkutaketan – a,b,c,d	1	Kapoeira – A, B(b),c,d	1
Saskibaloi partidua – A,b,C,D	1	Baloi errea – A,b,C,D	1	Poliziak eta lapurrak – a,b,c,d	1	“Taddaz Derhaabash” –A,b,C,d	1
Bolei partidua – A,b,C,D	2	Colpbol – A,b,C,D	2	Harrapaketa n – A,b,c,d	3	Baloi eseria – A,b,c,D	1
Txinga erute – A,B,C,D	1	Arto bilketa – A,B,C,D	1			“Pulso gitano” – A,b,C,d	1

Euskal Pilota- A,b,C,D	2	Errugbi- tag- A,b,C,D	2				
Soka tira- A,b,C,D	1	Para- saskibalo - A,b,C,D	1				
Ultimate frisbi- A,b,C,D	3	Para-Bolei - A,b,C,D	1				
Artzikirol - A,b,C,D	1						
GUZTIRA:	24			6		6	

Maizt* = Joko-jolasaren maiztasuna (jarduera jorratu den saio bakoitzeko 1)

A = Espazio ziurra a = Espazio ziurgabea
 B = Psikomotorra b = Soziomotorra
 C = Garaileduna c = Garaile bakoa
 D = Materiala d = Material bakoa

5.grafikoa: IPI Sansomendiko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoan 2017ko Urritik 2018ko Maiatzera bitartean erregistratutako Joko-jolasen sailkapena, Jokoak %8,3a (3), ia-jokoak %58,3a (21), Jolasa-jokoak %16,7a (6), ia-jolasak %11,1 (4) edo jolasak %5,5a (2) izanik. Lagina 36.



Argi ikusten den bezala, ia-jokoek nagusitasuna hartzen dute saioetan, joko-jolas guztien %58,3a izanda, guztira 21 saioetan jokatu izan direlarik. Bigarren postuan jolasa-jokoak aurkitzen ditugu, joko-jolas guztien %16,7a izanik, 6 saiotan erabili

direrarik. Gero ia-jolasak daude, zeintzuk joko-jolas eduki guztien %11,1 irudikatzen duten, saioetan 4 aldiz jorratu direrarik. Jokoak datoz gero, joko-jolas guztien %8,3a izanda, saioetan 3 aldiz proposatu direrarik; eta bukatzeko jolasak, birritan proposatu egin dira, guztizkoaren %5,5a soilik izanda.

Joko puruak direnak 3 dira (arto-bilketa, txinga erute eta tabas harriekin), behatutako joko-jolas guztien %8,3a osatuta. Joko hauek gizonaren eredua islatzen dute bere osotasunean, non *plazagizonaren* eredua agertzen da, bere burua egiten duen gizona. Esan daiteke IPI Sanomendi Ikastetxean hauek gutxiengoa irudikatzen dutela.

Ia-jokoen barnean, sozio-motorrak, espazio ziurrekoak, memoriadunak eta objektuarekin egiten direnak dira nagusi (talde kirol guztiak, zelai errea, buztana kentzera...), behatutako guztizkoaren %58,3a izanik, guztira 21, eta joko puruak ez diren ia-joko guztiak kategoria hauetakoak dira (joko sozio-motorrak). Hauek gizonari egotzi izan zaion irabaztearen plazeraren balioa islatzen dute, baina gizonen jokoaren eredu gorena den psikomotritzitatea ukatzen dute. Besteekiko harremanak uztartzen dira. Aurkaria irabazteko besteekin harremanak edo kolaborazioa izatearen estrategia konbinatzen da. Oposizioaren ideia kolaborazioarekin nahasten da, tradizioan emakumeen eredu izan denarekin nahastuz. Kanpokoa (aurkaria) irabaztean oinarritzen den gizonen eredu hau ematen dela esan daiteke baina kolaborazioa beharrezkoa izanez, jokoaren ezaugarriak leunduz. Buztana kentzean, ordea, aurkakotasun hutsaren printzipioa bakarrik agertzen da (bakoitzak bakarrik jarduten du besteen aurka), eta irabaztearen plazerean oinarritzen da (besteen buztan guztiak kentzean irabazle bihurtuz). Ia-joko hau gizonen eredura gehiago hurbiltzen da besteak baino.

Esan beharra dago joko-jolasetan talde kirolak nagusitzen diren (behatutako joko-jolas guztien %50a), eta Hargreavesek azaldu bezala kirola sexu diskriminazio iturri garrantzitsu bat da, non maskulinitatearen hegemonia uztartu eta mantendu egiten den, eta batez ere tradizionalki maskulinoak izan diren kirolean, hala nola, talde kirol gehienetan (Hargreaves, J., 1993). Honen adibide bat gaur egungo kirol federazioen sexu bereizketan nabarmentzen da, hurrengo irudian ikusi daitekeen bezala:

11.14. Personas que practicaron deporte en el último año según sexo por modalidad deportiva. 2015

(En porcentaje del total vertical)

	TOTAL PRACTICA DEPORTE	Hombres	Mujeres
TOTAL (Miles)	20.840	11.358	9.482
%	100	100	100
Fútbol 11 y 7	22,4	35,8	6,3
Fútbol sala	14,2	23,3	3,3
Baloncesto	11,7	14,9	7,9
Balonmano	4,1	4,5	3,6
Voleibol	8,6	8,9	8,3
Rugby	1,8	2,4	1,2

3. irudia: 2015ean Espainian aurreko urtean kirola egin zutenetik modalitatearen eta sexuaren araberako sailkapena. INE. Consejo Superior de Deportes.

Irudian ikusten den bezala, klasean jorratutako talde kirol askotan (futbol, saskibaloia, errugbi eta boleibol), gizonen parte hartzea handiagoa da emakumeena baino Espainia mailan. Azkenengo urtean (2014) kirola praktikatu duten gizonen %35,8ak futboleant ibili diren bitartean, emakumeen %6,3a soilik ibili da futboleant. Saskibaloian ere ezberdintasuna handia dago sexu artean, %23,3 eta 3,3arekin, hurrenez hurren. Kasu guztietan ematen da gizonetan parte hartze handiagoa, ezberdintasun txikiena boleiboleant ematen delarik (%0,9ko aldea gizonen alde). Esan daiteke boleibola femeninitasunarekin talka gutxien egiten duen talde kirola dela, horregatik emakumeen parte hartzea handiagoa da. Errugbian, aldiz, kontrako gertatzen da, eta ehunekotan gizonen parte hartzea emakumeenaren bikoitza da (Consejo Superior de Deportes, 2017). Ondorioz, talde kirolak gizonen eredia direla esan daiteke, eta IPI Sansomendi Ikastetxean talde dueluak dira gehien proposatzen diren joko-jolasak.

Jolasa-jokoan barnean jarduera sozio-motorrak, eremu ziurrekoak, memoria gabeak eta objektuarekin izan dira guztien erdia (baloi eseria eta soka-saltoak). Hauek behatutako joko-jolas guztien %8,3a irudikatzen du (joko puruen berdina). Errepikatzearen plazeraren balioa islatzen duen joko jolasaren irudi ludiko honek emakumeari egotzi izan zaion zaintza balioa islatzen du, etxeko bizilagunen zaintzaren balioa eta ugaltze lanak. Gaur egun, emakumeek etxeko lanetan batz bestea ematen duten denbora soziala gizonena baino bi ordu gehiagokoa da egunean batez bestea, Emakundek 2010ean egindako ikerlanaren arabera (Santeodoro, Y., 2015: 233). Ondorioz, emakumeari egotzi izan zaion eta gaur ere mantentzen den etxeko eredia islatzen dute jarduera hauek, eta gutxiengokoa dira IPI Sansomendi ikastetxeko DBH

4. mailan. Beste bi jolasa-joko (*kapoeira* eta *pulso gitano*), tradizionalki eredu maskulinoarekin erlazionatutako jolasa-jokoak dira. Kapoeira, adibidez, psiko-motorra (edo sozio-motorra), eremu ziurrean, material gabe eta garaile gabe egiten den jarduera da. Hala ere, tradizionalki gizonen borroka jarduera baten oinarritutakoa den jarduera izan da (dantza izaera hartzen du bere esklabotzaren testuinguruko sorreran ez zietelako borrokatzen uzten), non gizonak nagusiki kapoeira egiten zuten eta emakumeek samba. Pulso gitano ordea, garailedun jolasa-jokoa eta aurkaritza hutseko sozio-motrizitatea duena. Garailedunaren eta aurkariaren ideiak gizonezkoen ereduaren isla dira, beraz esan daiteke egindako jolasa-joko guztiak ez direla emakumeen ereduarekin bateratzen, nahiz eta teoriak horrela ulertarazten duen.

Jolas puruak direnak bi izan dira (ezkutaketa jolasa eta poliziak eta lapurrak), behatutako joko-jolas guztien %5,5a irudikatuz. Tradizionalki eredu mistoa duen jarduera puru bakarrak dira hau, non mutil eta neskek inolako genero estereotipo edo aurreiritzi barik jostatu daitezkeen denek batera. Espazioarekiko ziurgabetasuna duten behatutako joko-jolas bakarrak dira hauek. Espazioarekiko ziurgabetasuna jolasaren barne logikaren ezaugarri propioa da, eta jolasak gizon zein emakumeek jostatzeko balio dute. Espazioarekiko ziurgabetasunak arriskua darama, eta beraz arrisku horren aurrean kolaborazioa agertzen da gehiagotan, arrisku hauei aurre egiteko batasuna behar delako. Kolaborazioak tradizionalki emakumeen ereduarekin bat egiten du, hala ere espazioarekiko ziurgabetasunarekin konbinatuz espazio apropos bat sortzen da bai neskek bai mutilek batera jostatzeko. Gainera, eremu ziurgabearen egindako garailedun jokoak oso gutxi izan dira tradizioan Euskal Herrian (guztien %2,9a soilik), ondorioztatuz espazioarekiko ziurgabetasunean garaile bako joko-jolasak nagusitzen diren, eta garailedun joko-jolasak eremu ziurrago batera ekartzeko tendentzia bat ikusten da (Etxebeste, J., 2009: 67).

Sozio-motorra, espazioarekiko ziurgabetasun eza, memoria gabea eta objektu barik egiten diren ia-jolasak 2 dira, guztira 4 aldiz proposatuak (harrapaketa eta haria moztera), ondorioz guztizkoaren %11,1a. Hauek ia-jolasak dira, jokoen espazio ziurra dutelako ezaugarri bezala (3 ezaugarritik bat). Hauek etxeke ereduaren harreman estuen isla dira. Emakumeen eta gizonaren arteko harreman estuak eta bizitza konpartitzearen balioak islatzen dituzte, emakumearen eta gizonaren arteko elkarbizitza proiektuan harreman pertsonalen plazeraren balioa islatuz (Santeodoro, Y., 2015: 234-235).

6. ONDORIOAK

Joko-jolasak kulturaren isla dira, eta kultura horretan ematen diren joko-jolasak aztertuz kultura horretako ezaugarriak aztertu daitezke. Hau gertatzen da joko-jolasak sozializazio prozesurako tresna garrantzitsua baitira, umeak plazeraren bitartez euren izaerak eta identitateak bizi diren kulturaren ezaugarriekin akorde eraikitzeko tresnak.

Praxiologia motorrak ikuspuntu sistematizatu eta zientifiko bat eskaintzen du joko-jolasetan ematen diren transferentziak aztertzeko era osatu eta testuinguratu batean (Lagardera, F. eta Lavega, P., 2003). Egoera motor batek dituen berezko ezaugarriak (barne logikak), jokabide motorrean eragina dute, beraz pertsonaren jokabidea moldatzen dute. Era berean pertsona bakoitzak eta ingurune soziokultural bakoitzak esanahi ezberdinak izango ditu barne logika bakoitzerako (kanpo logika). Bi kontzeptu hauek ulertuta, ondorioztatu daiteke Heziketa Fisikoan proposatzen diren edukiek (joko-jolasak) paper garrantzitsu bat dutela ume eta gazteen sozializazio prozesuan eta euren identitate eta jokabideen eraikuntzan, transferentziaren bitartez (Parlebas, P., 2001).

Generoarekin berdina pasatzen da, mutil eta nesken sozializazio ezberdinetan joko-jolasek berebiziko funtzioa dutela ondorioztatu daiteke. Horregatik, irakaslearen afera da proposatzen dituen edukiak ikasleen jokabideengan interbentzio bat bezala ikustea, eta eduki hauek sorrarazten dituen jokabideak azterzea, bere helburuekin bat datozen ikusteko.

IPI Sansomendi Ikastetxeko DBH 4.mailako Heziketa Fisikoko edukiak aztertu ondoren, zenbait ondorio atera daitezke:

Mutilek eta neskek curriculum berdina dute Heziketa Fisikoan, eta klaseak batera egiten dituzte, ez da segregaziorik ematen (aldageletan izan ezik). Hala ere, mutilen eta nesken parte hartzea, interesa, jarrerak eta motibazioak ezberdinak direla ondorioztatu izan da behaketa parte-hartzailearen bitartez, joko-jolas askotan mutilen nagusitasuna era argi batean ikusi daitekalarik (posizio gehiago, pase-harrera gehiago, desplazamendu gehiago, tanto gehiago, teknika eta abileziak garatuago...). Nahiz eta programazioaren eta ikastetxearen helburuetan berdintasuna agertzen den, errealitatean ezberdintasunak ikusi daitezke generoaren ikuspuntutik.

Heziketa Fisikoan behatutako edukien barne logikaren analisiaren arabera, eremu ziurretan egindako jarduerak nabarmentzen dira. Honekin IPI Sansomendin espazio zibilizatuei garrantzi handiagoa ematen zaiola ondorioztatu daiteke. Espazio ziurren barnean, tradizionalki plaza edo kaleko ereduko espazioak erabiltzen dira (frontoia, kantxa...), eta honek gizonen eredu indartzen duela adierazten du. Hala ere, espazio hauen erabilera etxeko ereduaren antzekoa da (pribatua, afektiboa...), gizonen eredu tradizionala emakumearen ereduarekin nahastuz.

Harreman sozialei erreparatuz, ondorioztatu daiteke IPI Sansomendin taldeari banakoari baino garrantzi handiagoa ematen zaiola. Taldearen kontzeptu hau tradizioan emakumeen ereduaren isla den arren, jarduera sozio-motorren barnean agertzen diren harreman motak beste eredu bat erakusten dute. Oposiziozko jarduera gehiago proposatzen dira kolaboraziozkoak baino. Oposizioaren ideiak tradizioan gizonaren ereduarekin bat egiten du, kolaborazioarenak, ordea, emakumearenarekin. Jarduera sozio-motor gehienak kolaborazio-oposizioa dute, hemen bai gizonen bai emakumeen eredu tradizionalak agertzen dira.

Denboraren harremanetan gizonen eredu tradizionalaren nagusitasun garbi bat ikusten da, joko-jolas gehienak, ondorioz mutilen mesederako botere desoreka bat sortuz. Ondorioztatu daiteke IPI Sansomendin lehiakortasunari edo irabazteko plazerari garrantzi handiagoa ematen zaiola elkarbanatzeko plazerari baino. Errealitate hau gizartearen antolaketa-ondorio ere bada, non gizarte modernoan kausalitateak garrantzi handiagoa hartzen duen kasualitateak baino.

Joko-jolasen analisia eginda, ikusi da nola ia-jokoek (joko sozio-motorrak) nagusitasuna hartzen duten. Hauek gizonaren eredu tradizionala bere osotasunean islatzen ez duten arren (sozio-motrizitatea dago), esan daiteke maskulinitatearen eredura gehiago hurbiltzen direla feminitatearen eredura baino. Gainera, proposatutako joko-jolas guztien erdia talde dueluak dira (ia-jokoak), eta talde dueluetan oraindik ere sexu ezberdintasunak argiak dira bai kirol hauen parte hartzean, bai interesean, bai komunikabideetan, gizonetzkoen nagusitasuna argia izanik ia guztietan.

Tradizioan emakumeen eredu purua jarraitu duten jarduerak gutxi dira, eta era berean gizonen eredu bere osotasunean islatzen dutenak, bien portzentaiak berdinak dira eta.

Tradizioaren eredu mistoa islatzen duten jarduerak gutxi dira. Bertan ia-jolasak, eta jolasak aurkitzen dira, eta hauek proposamen egokia izan daitezke bai mutilek bai neskek inolako genero estereotipo edo aurreiritziren muga barik elkar jostatzeko.

Orokorrean, ondorioztatu daiteke IPI Sansomendi Ikastetxeko DBH 4. Mailako Heziketa Fisikoan tradizioan maskulinitatearekin erlazionatutako joko-jolasak nagusitzen direla, horrela gizonen eredu erreproduzitura eta mutilen alde egiten duen botere desoreka bat sortuta. Hala ere, emakumeen eredu tradizionalarekin erlazionatutako joko-jolas edo barne logika batzuk behatu dira, eta baita eredu mistoa erreproduzitzen dutenak ere. Gainera, irakaslearen partetik ez da diskriminazio espliziturik behatu, berdintasuna lortzeko saiakera egiten duenaren seinale.

7. ERREFERENTZIAK

Álvarez de Zayas, C. (2005). *Pedagogía. Un modelo de formación del hombre*. Lambayeque, Perú: Fondo Editorial FACHSE.

Beltrán, V., Devís, J, Peiró C. eta Brown, D. (2012). When physical activity participation promotes inactivity: negative experiences of Spanish adolescents in physical education and sport. *Youth et Society*, 44(1), 3-27.

Consejo Superior de Deportes (2017). Anuario de estadísticas deportivas de 2017. *Subdirección General de Estadística y Estudios. Ministerio de Educación Cultura y Deporte*. 20-03-2018. Hemendik lortuta:
<http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/dms/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/deporte/anuario-deporte/AED-2018/Anuario de Estadísticas Deportivas 2018.pdf>

Devís, J, Fuentes, A. eta Sparkes, C. (2005). ¿Qué permanece oculto del currículum oculto? Las identidades de género y de la sexualidad en la educación física. *Revista Iberoamericana de Educación*, 39, 73-90.

Etxebeste, J. (2009). *Capítulo 2. Juegos deportivos y socialización: el caso de la cultura tradicional vasca*. Hemen: V. Navarro eta C. Trigueros. *Investigación y juego motor en España* (49-75). Lleida, Espainia: Edicions de la Universitat de Lleida.

Etxebeste, J., Del Barrio, S., Urdangarin, C., Oiarbide, A. (2014). Ganar, perder o no competir: la construcción temporal de las emociones en los juegos deportivos. *Educatio Siglo XXI*, 32(2), 33-48.

García, M., Puig, N., Lagardera, O., Llopis, R., Vilanova, A. (2017). *Sociología del Deporte*. Madril, Espainia: Alianza Editorial.

Hargreaves, J. (1993). *PROMESA Y PROBLEMAS EN EL OCIO Y LOS DEPORTES FEMENINOS*. Hemen: J.M. Brohm, P. Bordieu, E. Dunning, J. Hargreaves, T. Todd eta K. Young. *Materiales de sociología del deporte* (109-127). Madril, Espainia: La Piqueta.

- Humberstone, B. (1990). *Warrriors or Wimps? Creating Alternative Formos of Physical Education*. Hemen: M.A. Messner eta D.F. Sabo (eds). *Sport, men, and the gender order* (201-210). Champaign, Illinois: Human Kinetics Books.
- Lagardera, F., eta Lavega, P. (2003). *Introducción a la praxiología motriz*. Badalona: Paidotribo.
- Martínez, L., García, A. (1997). *Educación física y género. Una mirada al cuerpo en la escuela*. Salamanca, Espainia: Amarú.
- Ministerio de Educación y Cultura (1992). *Área de EF: Educación Primaria. Educación Secundaria. "Cajas Rojas"*. Madrid.
- Mintegui, C. (2003). VIL DEPORTE, SOCIALIZACIÓN Y GÉNERO. Hemen: F.J. Medina eta R. Sanchez (eds). *Culturas en juego: Ensayos de antropología del deporte en España* (159-), 13. Barcelona, Espainia: Icaria, Institut Catalá d' Antropologia.
- Parlebas, P. (2001). *Juegos, deporte y sociedades. Léxico de praxeología motriz*. 36. Badalona, Espainia: Paidotribo.
- Sanchez, C., Chiva-Bartoll, O. eta Ruiz-Montero, P. (2016). Estereotipos de genero y educación física en educacion secundaria. *Revista Internacional de Ciencias Sociales de la Actividad Física, el Juego y el Deporte*. 11(11). ISSN: 2253-6604.
- Santeodoro, Y. (2015). *Kurutziaga ikastolako gorputz hezkuntzan giza eredu motorrak* (Doktorego tesia). Vitoria-Gasteiz, Espainia: Euskal Herriko Unibertsitatea.